

ELKARBIZITZA ARAUDIA



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

2016.eko irailaren 1etik aurrera indarrean dagoen araudia.

AURKIBIDEA

0.-SARRERA.....	3. or.
1.- IKASLEEN ESKUBIDEAK.....	5. or.
2.- IKASLEEN BETEBEHARRAK	8. or.
3.- IKASKETA ARAUDIA.....	10. or.
4.- ELKARBIZITZA ARAUDIA.....	10. or.
5.- NEURRI ZUZENTZAILEAK	15.or.
6.- JANTOKIKO ERABILERA	17.or.
7.- FUNTZIONAMENDU OROKORRERAKO ERANSKINAK	19.or.
IKASTETXEETAN BERDINEN ARTEKO TRATU TXARRAK GERTATZEN DIRENEAN JARDUTEKO PROTOKOLOA.....	21.or.
ZIBERJAZARPENA	28. or.
ESKOLAZ KANPOKO EKINTZETAKO ELKARBIZITZA ARAUAK.....	32. Or.

0 SARRERA

Araudi hau, “Euskal Autonomi Erkidegoko ikastetxe ez unibertsitarioetako ikasleen eskubide eta betebeharrei” buruzko, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren markoaren barruan (EHAA 240. zenb. – 2008ko abenduaren 16an) ulertu eta aplikatu behar da, eta gure Ikastetxeko Heziketa Proiektuan jasota dago, **Jesusen Lagundiaren Ikastetxetako Misioaren eta Ikupenaren** espirituarekin.

MISIOA

- ✓ **Heziketa Zentro** kontzertatua gara, denei irekitakoa, **Loiolako Ignaziok** zuen, Jainkoaren, munduaren eta gizakiaren esperientzian inspiratuta, eta Jainkoaren Maitasunaren eta pertsonen arteko Maitasunaren **Berri Onaren aldarrikapenarekin** konprometituak.
- ✓ **Gure ikasleak, gure lanaren erdiguneak**, pertsona orekatuak izatea da gure xedea: beren ahalmenen arabera intelektualki jantziak, haztera irekiak, besteentzako zerbitzuan, eta gizarteak aurkezten dizkien erronkei aurre egiteko gai izango direnak.
- ✓ Heziketa lan hau familiarekin eta gizartearekin **partekatzen** dugu, Euskal Herriaren eta bere kulturaren eta hizkuntzaren testuinguruan.
- ✓ Gure **kudeaketa**, erantzukidetasunean eta etengabeko hobekuntzan oinarritzen da, **etengabeko prestakuntzan diharduten langile kualifikatuekin**, eta behar bezalako baliabideak ditugularik.

IKUSPENA

- ✓ **Bermedun** ikastetxea izatea, eta bere esperientzia historikotik eta Ignazioren herentziatik, gure herriko errealitate kultural, sozial eta politikokoan **konprometituta** dagoena.
- ✓ **Irekia** eta topalekua, eta **elkarrizketa eraikitzailea**.
- ✓ **Konfiantza** sortzen duena bere:
 1. **Bikaintasun akademikoagatik**:
 - Berritzailea, pedagogia aldetik
 - Zorrotza eta eroso, bakoitzaren ahalmenen garapenean
 - Ikasleria eleanitzaren sustatzailea
 2. **Kudeaketa eraginkorragatik**, oinarritzen baita:
 - erantzukidetasunean
 - prozesu eta baliabide desberdinen etengabeko hobekuntzan
 - finantza oreka bilatzean.
- ✓ Besteei **boluntario eta zerbitzu esperientziak** emanaz jarraitzen du pastoraltza, kultura, aisialdiko eta kirol jardueretan.

Araudi honek, beraz, **askatasuna, errespetua, tolerantzia, integrazioa, partaidetza eta kritika gaitasuna sustatu** behar ditu, besteak beste. Baina baita erantzukizuna ere, norbere ahalmenen garapenean eta besteen zerbitzura jartzeko gaitasunean.

Dokumentu honen arauak, adierazitako printzipioen zehaztapen praktikoa eta laguntza eraginkorra izatea nahi da, proposatutako helburuen lorpenerako.

Lehen hezitzaileak **gurasoak** direla jakinik eta langintza horretan gu haien lankide garelara, **jakinean egon** behar dute, beraz, arautegia aplikatzerakoan (arautegiaren eta jokatzeko eraren berri emanez), berorren betetzeko moduetan, beren seme-alaben aldetik betebeharrak hausteak diren portaerak gertatzen direnean.

Gurasoak lankide izatea komeni da, neurri zuzentzaileak finkatuz, gure lehen irakaskuntza lana oztopatzen duten neska-mutilen oinarrizko gaitasun sozialak eta hiritarrak lortzeko bidean.

Ikasle guztiak dute, araudi honetan aitortutako balioak eta printzipioak ezagutzeko eskubidea eta betebeharra, eta baita horietan heztekoa ere.

Ikasleak beren eskubideez baliatuko dira, beren betebeharren, eta hezkuntza komunitateko gainerako kideen eskubide-aitormenaren eta errespetuaren kaltetan izan gabe.

Heziketa elkarte osoak zuzengarri izan daitezkeen jokabideen ezaupidea izatea bermatzeko, ikasleei, eta baita guraso edo hauen legezko ordezkariari ere, dokumentu honen edukia gogoraraziko zaie ikasturte bakoitzaren hasieran, tutoretzaren bidez.

Ikasle guztiak dute, araudi honetan aitortutako balioak eta printzipioak ezagutzeko eskubidea eta betebeharra, eta baita horietan heztekoa ere.

Ikasleak beren eskubideez baliatuko dira, beren betebeharren, eta hezkuntza komunitateko gainerako kideen eskubide-aitormenaren eta errespetuaren kaltetan izan gabe.

Heziketa elkarte osoak zuzengarri izan daitezkeen jokabideen ezaupidea izatea bermatzeko, **ikasleei, eta baita guraso edo hauen legezko ordezkariari ere, dokumentu honen edukia gogoraraziko zaie ikasturte bakoitzaren hasieran,** tutoretzaren bidez.

Araudi honen **helburu nagusia** honako hau da: **ikasleek beren eskubideak baliatzen eta beren betebeharrak betetzen ikasi behar duten bizikidetza-esparrua arautzea,** gizartean eskubide osoko herritar gisa integra daitezen. Alde batetik, **bizikidetza positiboki** bultzatzean datza, ikastetxeek beren hezkuntza-proiektuetan gaineratu behar dituzten planekin bat etorritik .

Bizikidetza arautuko duen marko orokorra izanik, **beste ekimen hezitzaile askoren osagarri izateko espirituarekin eginda dago,** hala nola, **bizikidetza positiboa sustatzeko tutoritza arlotik bultzatzen diren jarduerak** talderen funtzionamendua era adostuan eta parte hartzailean bultzatzeko, **edota ikasleek eurek Foroaren bidez hobekuntza proposamenak egiteko bideratzen dituztenak.**

1. IKASLEEN ESKUBIDEAK

I. HEZIKETA INTEGRAL BATEN ESKUBIDEA.

1. Beren nortasunaren garapen osoa lortzen lagunduko dien **prestakuntza eskubidea**. Adibide batzuk aipatuko ditugu eskubide honek zer esan nahi duen adierazteko:
 - Prestakuntza, eskubideen eta askatasunen errespetuan, eta tolerantzian jardunez.
 - Ezaupideak, ohitura intelektualak eta lan-teknikak lortzea.
 - Ikasleen aldetik, beren kultur nortasuna aurkitzea, Euskal Herriko kide gisa.
 - Bakerako, askatasunerako eta herrien arteko lankidetzara eta solidaritate ideien sustapenerako prestakuntza.
 - Afektibitatearen, norbere autonomiaren, auto-estimua eta besteekin harremanak izateko gaitasunaren garapena.
 - Partaidetza, hezkuntzaren kalitate-hobekuntza.
1. Ikasleek eskubidea dute beren dedikazioa, ahalegina eta errendimendua aitortuak eta **objektiboki baloratuak izan daitezten**.
 - Ebaluazio irizpideak eta gutxienezko helburuak ezagutzeko eskubidea.
 - Irakasleei kalifikazioei buruzko argibideak eskatzeko eskubidea. Irakasleek ikastetxean gordeko dituzte probak, lanak eta ariketak, ikasturteko edozein unetan eskura egon daitezten, eskola garai guztian zehar eta, gero, ezohiko azken deialdiko kalifikazioen erreklamazio epea igaro bitartean.
2. Errespetu eskubidea, beren kontzientzia askatasunarenganako eta beren uste ideologiko, erlijioso eta etikoenganako. Eskubide hau era honetan bermatuko da:
 - Ikasleriaren manipulazio ideologikoa edo propagandazkoa saihestuko duen irakaskuntza emanez.
 - Ikasleen kritika gaitasuna sustatuz.
 - Ikastetxeko hezkuntza Proiektuaren berri emanez.
3. Beren **osotasun fisiko, psikiko eta morala errespetatua izateko eskubidea**, eta baita beren duintasun pertsonala ere, behin ere tratu umiliagarri edo iraingarrien tresna izan ez daitekeelarik.
4. Eskolaren, bokazioaren eta lanbidearen **orientazioa jasotzeko** eskubidea.

II. ESKOLA OREKATZAILE BATEN ESKUBIDEA.

- 1 Hezkuntzako **maila desberdinetara iristeko aukera berdinen eskubidea**: Derrigorrezkoak ez diren mailetan ez da, norberaren behar besteko probetxua edo ikasteko gaitasuna ez den beste mugarik izango.
- 2 **Diskriminatua ez izateko eskubidea**, jaiotza, arraza, hizkuntza, sexua, ahalmen ekonomikoa, maila soziala, uste politiko, moral edo erlijiosoak, edo baita ezintasun fisiko edo psikikoak direla tarteko.

- 3 Ikasleek hezkuntza esparruan **babes sozialerako eskubidea** dute, familiako ezbeharretan edo istripu kasuetan.

III. PARTAIDETZA ESKUBIDEA.

- 1 **Parte hartzeko eskubidea**, Ikastetxeko funtzionamenduan eta bizitzan, eskola jardueran eta bere kudeaketan, indarrean dauden Hezkuntza Legeen eta geure Arautegiaren arabera.
- 2 Talde edo Sail bakoitzaren partaidetza, **gelako Ordezkarien eta Ordezkariordekoen bidez** egiten da. Horrez gain gela bakoitzak **Ikasleen Foroan ordezkari** bana izango du, elkarbizitzarekin zer ikusi duten gaiak aztertzeko eta bideratzeko.
 - Gelako Ordezkariak eta Ordezkariordekoak, gelako ikasle guztien artetik zuzeneko eta isilpeko botoz hautatu behar dira.
 - Gelako ordezkarien egitekoak: Beren ordezkaritza, guztien onerako erabili behar dute, eta denek babestu eta errespetatu beharko dute (Ikaskide eta irakasle).

Gelako eledunak eta ordezkariak izango dira:

- Irakasleekin hitz egiteko ardura izango dute, maila orokorrean sor daitekeen edozein arazo konpontzeko.
 - Tutorearekin lankidetzat estuan arituko dira gelaren funtzionamenduaz iritziak trukatu.
 - Gelaren ordezkariak dira ebaluazioetan (taldeko ebaluazioetara joango dira, **DBH 3. eta 4.** mailatan).
 - Irakasleren bat faltako balitz, tutoreari edo irakasle taldeko norbaiti, bere faltaren berri emango diote irakasle-gelan.
- 3 Ikasturte bateko Ordezkari eta Ordezkariordeko taldeak Ikasturteko **Ordezkari Kontseilua** osatzen du. Kontseilu honek Koordinatzailearekin batera, ikasturteko kontseilua osatzen du.
 - Ordezkarien kontseilu hau Ikasturteko Arduradunak deitu eta zuzenduko du, ebaluazio bakoitzean behin gutxienez.
 - DBH 1. eta 2. mailako Ordezkarien Kontseiluak DBH I. zikloko Ordezkarien Kontseilua osatzen du.
 - DBH 3. eta 4. mailako Ordezkarien Kontseiluak DBH II. zikloko Ordezkarien Kontseilua osatzen du.
 - 4 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek **bi ordezkari dituzte Ikastetxeko Eskola Kontseiluan**, Erakunde honi dagokion Legearen eta Arautegiaren arabera (Erakunde honen eginkizunak eta funtzionamendua jaso).
 - 5 Ikasleek **biltzeko eskubidea** dute, Euskal Eskola Publikoaren legearen 44. artikulua aitpatzen dituen laguntza neurriak jaso ditzaketan elkarteak sortuz. Elkarte hauek Ikastetxearen Gogo-oinarriak onartu beharko dituzte.
 - 6 Ikasleek **espresio askatasunerako eskubidea** dute, gertakari akademiko, kultural edo sozialen aurrean, **ezadostasun espresiorako aukera barne**. Ezadostasunak talde izaera duenean, ikasleen ordezkariak bideratuko dute.
 - Ezadostasun hori, erakundeek bezala hezkuntza Komunitateko kide orok merezi duten errespetuz adierazi behar da.
 - Idatzizko adierazpenaz baliatzeko, lekuaren eta unearen baimena eskatu behar zaio Koordinatzaileari.

- 7 Ikasleek **ikastetxean biltzeko aukera** izango dute, heziketa edo prestakuntza helburuak izan ditzaketen **eskola edo eskolaz kanpoko ekintza-izaera duten jardueretarako**. Horretarako, dagokion baimena eskatu beharko dute, jarduera akademikoen garapen normalean eragina izatea eragotziz, eta erakundeek eta eragina jasan dezakeen pertsona orok merezi bezalako errespetua bermatuz.

Ordezkarien eta ikasle guztien ardura izango da batzarrak eta asanbladak, errespetuz, egiaz, elkarrizketa giroan eta eraginkortasunez burutzea.

2. IKASLEEN BETEBEHARRAK.

I. ERRESPETATU BEHARRA DAGO GAINERAKOEN ESKUBIDE-JARDUNA.

Ikasleek Heziketa Elkarteko gainerako kideen eskubide eta askatasun-jarduna errespetatu beharra daukate.

Errespetatu behar dira, **kontzientzia askatasuna, ideologia, erlijio eta etika mailako uste sendoak**, eta baita Hezkuntza Elkarteko **kide guztien duintasuna, osotasuna eta intimitatea** ere, gerta daitezkeen **gatazka egoerak konpontzeko bide baketsuak bakarrik erabiliz**, ikaskideekin beti tolerantzia eta solidaritate jarrerak mantenduz, eta heziketa elkarteko gainerako kideen eskubideen jarduna sustatuz.

Betebehar hau honako **eginbehar** hauetan zehazten da:

- 1 Ikasleek **ez dute erabiliko** hezkuntza elkarteko **edozein kideren aurkako irain, mehatxu edo gaizki** esateko adierazpiderik.
- 2 Ikasleek **ez dute eskola eremuan grabaketarako bitartekorik erabiliko, ikastetxeak antolatutako jarduerak horien erabilera eskatu ezean**, kasu hauetan ere, ez dute heziketa elkarteko inoren grabaketarik egingo, bere gogoz kontrara edo bere **onespenik gabe**.
- 3 **Hezkuntza Elkarteko kiderik ez da diskriminatuko**, jaiotza, arraza, sexu, ideologia, hizkuntza, kultura, erlijio edo beste ezein zirkunstantzia pertsonal edo sozialengatik.
- 4 Ikastetxeko **Heziketa Proiektua errespetatu**.
- 5 **Ikastetxeko Arautegia bete**, Arautegi honetan gure Zikloarentzat zehazten dena.
- 6 Ikastetxeak zure esku jartzen dituen **instalakuntzak, altzariak eta material didaktikoa** errespetatu eta behar bezala erabili.
- 7 Heziketa elkarteko **beste kideen jabegoak eta norberaren gauzak errespetatu** eta, testu liburuak eta gainerako material didaktikoak, erabiliak izateko baldintza egokietan mantendu. Ikasleen erantzukizuna da, instalazioetan, altzarietan edo ikastetxeko nahiz lagunen gauzetan egindako **kaltea konpontzea, nahita edo utzikeria larriz egin izan denean**. Egin behar diren konponketen gastuen kargu egingo dira, txandaka, beren gurasoak edo ordezkari legalak arduradun ordezkatzaille izango direlarik.
- 8 Aktiboki parte hartu eta lankide izan irakaskuntzaren, eskola orientazioaren eta ikastetxeko elkarbizitzaren garapenik onena laguntzeko. Hautatuak izan direneko **ordezkaritza karguak duintasunez betetzea** eskatzen du honek, denen onaren alde eta Ikastetxearen helburuen alde lan eginez.
- 9 Ikasleek, ikastetxeak ezarri dizkien **heziketa neurri zuzentzaileen** barruko ekintzak **bete** beharra daukate.

II. IKASTEKO BETEHARRA.

Ikastea ikasleen oinarrizko betebeharra da. Beren gaitasun pertsonalei eta ematen diren ezaupideei probetxua ateratzea eskatzen du, beren garapen pertsonalik onena eta prestakuntza intelektual eta profesional egokia lortze aldera.

Eginbehar orokor hau ondorengo betebeharretan zehazten da:

- 1- **Puntualtasunez joan eskolara**, eskolako egutegian erabakitako **jardueretan parte hartu eta ezarritako ordutegiak errespetatu**. Ikasle batek absentismo esanguratsua daukala sumatzen denean, ikastetxeak, heziketa agintarien eta tokiko erakundeen jakinean ipiniko du gertakaria, eskola absentismoa errotik kentzeko, administrazio eta erakunde guztien lankidetzaz lortze aldera.
- 2- Irakasleak gelan ematen dituen azalpenak, arretaz entzun eta proposatzen dituen jarduera didaktikoak egin.
- 3- Irakasleek **agindutako lanak egin**.
- 4- **Ikaskideen ikasteko eskubidearen jarduna errespetatu**.
- 5- Ikasgelan solidarioak izan, denen aprobeitxamendurako aldeko giroa sortzerakoan, eta geletan jokabide aztoratzaileak saihestu.

3. ELKARBIZITZA ARAUDIA

DESEGOKIAK ETA AURKAKOAK DIREN NAHIZ BIZIKIDETZAN KALTE LARRIAK ERAGITEN DITUZTEN JOKABIDEAK ETA HORIEN ZUZENKETA

Aurreko atalean adierazitako **edozein eginbehar ez betetzea beti da, gutxienez, jokabide ezegokia**, zuzendu egin beharko dena kasu guztietan, eta elkarbizitzaren aurkako jokaeratzat edo elkarbizitza larriki kaltetzen duen jokaeratzat hartuko da, bere eskubideen jardunak eta eginbeharrak betetzeak heziketa elkarteko gainerako kideei eragiten dielako. Arautegi honetan zehaztasunez jasotzen dira ikasleen eskubideak eta betebeharrak, baita jokabide desegokiak bideratzeko **neurri zutzentzaileak** ere.

Arautegi honetan **jokabide mota desberdinak** biltzen dira: **Jokabide desegokiak**, Ikastetxeko **bizikidetzaren aurkakoak** eta **bizikidetzarentzat larriki kaltegarriak** diren jokabideak. Bada, horiek **baino ezin izango dira zuzendu**.

Ikastetxeko **irakasle eta hezitzaile guztiek**, beren hezitzaile zeregina beteaz, gelan edo ikastetxeko beste instalakuntzetan egindako **jokabide ezegokiak bideratzeko aurretik adostutako eta jakinarazitako neurri zutzentzaileak aplikatu ditzakete**, eta burutu behar dituzte, **zuzenean beren ardurapean daudenean, baita eskolako edozein gune hezitzailean daudenean ere**. Eta hitzez errieta egingo dio, unean bertan, elkarbizitzaren aurkako edo elkarbizitza hori larriki kaltetzen duen jokabideren batean aurki lezakeen edozein ikasleri, eta koordinatzaile zein zuzendariarengana aurkezteko aginduko, beharrezkoa iritsiko balio, unean bertan baita ere.

Aurrez esandakoaren kaltetan izan gabe, **Zuzendariari**, edo arautegiaren arabera bere ordezt dagoenari **dagokio** elkarbizitzaren aurkako edo elkarbizitza hori larriki kaltetzen duen jokabideren baten aurkako **neurri zutzentzaileak aplikatzeko eskumena**.

Ondoren biltzen diren **jokaerak ere zuzendu egin behar dira**, ikastetxez kanpo edo eskola-orduz kanpo gertatzen direnean, **ikastetxeak antolatutako jarduera osagarri edo eskolaz kanpokoetan gertatzen badira**. Halaber, eskola-jardunarekin kausa-ondorio harremana frogatzen den guztietan beti zuzendu beharko dira.

Ikasleria osoari exijitu ahal izango zaio **errespetuzko tratua**, heziketa elkarre osoarenganako eta baita, une jakinetan, **heziketa lanean lankide diren (begiraleak, hizlariak etab.) beste langile guztienganako** ere.

I. PUNTUALTASUNEZ ESKOLA ETA IKASTETXEAREN HEZIKETA EKITALDIETARA.

Garrantzitsua da puntualtasuna esigitzea bere alderdi hezitzaileagatik. **Irakaslea da bere gelako puntualtasunaren arduradun, eta bidezko muge barruan lortu behar du**.

Jokabide ezegokiak dira: Justifikatu gabeko puntualtasun falta, ez errepikatuak.

Ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabidetzat hartuko dira: Hiruhileko berean hiru alditik gora errepikatuak diren puntualtasun falten kasuak, betiere aurreko biak zuzendu badira, eta gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie.

Errepikatuak diren puntualtasun faltan kasuan, Tutoreari dagokio, hasiera batean, parte hartzea. Tutoreak ikaslearekin eta bere familiarekin hitz egingo du, jokabide hori zuzentzen saiatzeko, neurri zuzentzailetara iritsi baino lehen. Gaiak izaera larriagoak hartuko balitu, klaustroari jakinaraziko dio tutoreak, eta kontsulta egingo du hartu beharreko neurriak hartzeko.

□ Justifikatutako puntualtasun faltan kasuan, ikasleak bere justifikazioa ekarriko du, idatziz, hutsegitea gertatu ondorengo eskola-egun bateko epean.

II. ESKOLARA ETORTZEAK.

Eskolara etortzea eta Ikastetxeak antolatutako eta/edo sustatutako ekitaldietara etortzea beharrezkoa da.

Jokabide ezegokiak dira: Eskolara edo eskola jarduera osagarrietara, justifikatu gabe egindako falta ez errepikatuak.

Ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabidetzat hartuko dira: Hiruhileko berean hiru alditik gora errepikatuak diren faltan kasuak, betiere aurreko biak zuzendu badira, eta gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie

Eskolara ez-etortzeak irakasle bakoitzak kontrolatzen ditu, eskolara etortze orrian, eta baita puntualtasun faltak ere. Irakasle bakoitzak sinatzen du orrian eskola bakoitzaren ondoren. **Irakasleak exijitu egin behar du orria eta zer sinatzen duen jakin.**

Tutoreak arduradunarengandik jasoko du egunean eskolara etorri ez direnen orria, bera izango delarik Ebaluazio batean, eskolara ez-etortzeen kontua eramango duena, dagokion Ebaluazio saioan horren berri emanez.

Justifikatu gabeko faltatzat hartuko dira hurbileko azterketa bat prestatzeko aitzakian, edo oporren aurreko egunetan eta ondoren egiten diren hutsegiteak. Horrelakoetan, eta hutsegite hori gertatuko balitz, azterketan ez onartzea izango da emango den neurri zuzentzailea.

Ikasleren batek egun bat baino gehiago huts egingo balu, Tutoreak huts egitearen arrazoiez informatu egin behar du, familiari deituz.

III. IRAKASLEEI ETA IKASTETXEKO LANGILEEI ERRESPETUA.

Jokabide ezegokiak dira:

- Irakasleen edo agintari akademikoen esanak ez betetzea, horrekin batera, mespretxu, irain edo nahita egindako diziplina-eza ez dagoenean, eta baita beren zereginetan diharduten ikastetxeko gainerako langileen oharrei kasurik ez egitea ere.
- Heziketa elkarteko kideen aurkako jarrera, keinu edo begirunerik gabeko hitzak.
- Ikastetxeko langileei gezurra esan edo gezurrezko informazioa ematea, heziketa elkarteko kideren bati kalte egiten ez diotenean.

Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat hartzen dira:

- Agintari akademikoei edo irakasleei egindako desobedientzia ekintzak, diziplinarik ezarekin edo adierazpen iraingarri, mespretxu, erronka edo mehatxuekin batera doazenean, edo baita beren zereginetan diharduten ikastetxeko gainerako langileei ere.

- Ikaskideen edo heziketa elkarteko beste kideen aurkako mehatxu edo iraintzeko adierazpideak, edo baita heziketa elkarteko gainerako kideen aurkako keinu edo jarrerak, zalantzarik gabe, eraso ahalegin edo mehatxu gisa uler daitezkeenean.
- Heziketa elkarteko edozein kideren aurkako eraso fisikoa, ikastetxeko elkarbizitza larriki kaltetzeko jokabidetzat har ez daitezkeenean.

Elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabidetzat hartzen dira:

- Diziplina ezaren edo obedientzia ezaren ekintza esplizituak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitearekin batera, eta baita heziketa elkarteko kideen aurka oso iraingarri edo mingarritzat hartzen diren adierazpideak ere, hitzez, idatziz edo baliabide informatiko edo ikus-entzunezkoen bidez eginak.

IV. IKASKIDEENGANAKO ERRESPETUA:

Jokabide ezegokiak dira:

- Ikaskideen aurkako **adeitasunik ezako jarrera**, keinu edo hitzak.
- **Ikaskideen gauzak** nahita **erabiltzea**, haien borondatearen aurka.

Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat hartzen dira:

- **Bestearen ohore, intimitate eta irudiaren eskubideak ez errespetatzea**, berak aurrez berariaz adierazitako **onespenik gabe grabazio-bideak erabiliz**.
- Besteari, indarkeria fisikoa erabili gabe, berak **eskubidea** duen zerbait egitea **eragozte**a, era berean, indarkeria erabiltzera iritsi gabe, bere **borondatearen aurkako zerbait eginaraztea**.
- Jokabide ausartegiengatik arriskua sortu, **zauri fisikoak eragin ditzaketen objektuak erabiliz**.
- **Diskriminazioa suposa dezakeen edozein ekintza** edo jokabide, jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun egoera, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia edo bakoitzak izan dezakeen beste edozein egoera edo zirkunstantzia dela bide.
- **Aurrez adierazitako jokabide ezegokietako baten errepikapena**, hiruhilabeteko berean hiru aldiz izateraino.

Elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabidetzat hartzen dira:

- Heziketa elkarteko gainerako **kideen aurkako eraso fisikoa**, zauritzeko arrisku larriarekin.
- **Bestearen ohore, intimitate eta irudiaren eskubideak ez errespetatzea**, berak aurrez **berariaz adierazitakoaren kontra grabazio-bideak erabiliz**.
- **Bizikidetzaren aurkako jokabide guztiak, taldean egiten direnean** edo haien berri **nahita zabaltzen denean**, ahoz, idazki bidez, ikus-entzunezko baliabideen edo baliabide informatikoen bidez; **baita berdinen arteko tratu txarreko egoeretan parte hartzen dutenean ere**.

V. IKASTETXEKO EDO IKASKIDEEN MATERIALAREN ERRESPETUA:

Denok, irakasle nahiz ikasle, ardurak hartu behar ditugu zentzu honetan, ahal dugun ikasgela, korridore eta patio ordenatu eta txukunenak izateko, geure ekarpena eginez.

Jokabide ezegokiak dira:

- Ikastetxeko hornikuntza elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo beste edozein motatakoa, berariazko **baimenik gabe erabiltzea**.
- **Ikastetxeko** lokalak, bertako **materialak edo** heziketa elkarteko gainerako **kideen objektu eta gauzak hondatzea**, asmo txarrez izan gabe, **zabarkeria hutsez** egiten denean.

Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat hartzen dira:

- **Jakinaren ganean edo erabilera okerragatik, kalteak eragin direnean**, ikastetxeko lokaletan, altzarietan, materialetan edo dokumentuetan, edo heziketa elkarteko gainerako kideen gauzetan, eta ikastetxeko elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabideak ez direnean.

Elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabidetzat hartzen dira:

- **Bandalismo ekintzetan parte hartzea** edo instalazioetan, ikastetxeko ondasunetan, bertako langileei, beste ikasleei edo hirugarrengoei kalteak eragitea.
- **Dokumentu bat edo eskola erregistro bat kaltetzea, trukitzea edo aldatzea**, nola idatzizkoan ala informatikoan, eta baita dokumentu akademikoak baimenik gabe ezkutitzea edo erretiratzea ere.

VI. JABETZAREN ERRESPETUA

Jokabide ezegokiak dira:

- Ikaskideen gauzak intentziaz erabiltzea haien gogoz kontra.

Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat hartzen dira:

- Objekturen bat lapurtzea.

Elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabidetzat hartzen dira:

- Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokaera errepikatzea eta altzariak, instalazioak edo pertsonak bortxatuz objektuak lapurtzea.

VII. IKASTETXEAREN IZAERAREKIN LOTURA DUTEN IDEIA ETA EKINTZEN ERRESPETUA.

Jokabide ezegokiak dira:

- Alderdi hauen aurka, errespetu faltazko **lehen portaera denean, garrantzi gutxikoa**.

Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat hartzen dira:

- **Hutsegite arina errepikatzea edo** errespetu faltazko portaera **garrantzitsua denean**.

Elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabidetzat hartzen dira:

- **Hutsegite larria errepikatzea edo** errespetu faltazko portaera **oso garrantzi handikoa denean**.

VIII. LANGIROA.

Irakaslearen edo eskola-lagunen jarduera akademikoa errespetatu behar da, eta arreta eta ahalegin akademikoa erakutsi (lanak aurkeztu, geletara material egokia ekarri...).

Jokabide ezegokiak dira:

- Kalifikaziorako balio duten azterketa, proba edo ariketetan kopiatzea edo kopiatzen uztea, edo baimendu gabeko materialak edo tresnak erabiltzea bertan.

Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat hartzen dira:

- Azterketa ereduak edo erantzunen kopiak lapurtzea, edo baita banatu, saldu edo erostea ere.
- Nota-orria edo beste edozein dokumentu aldatzea, edo baita gurasoentzat edo legezko ordezkariarentzat diren irakasleen oharrak ez eramatea ere.
- Ikastetxeko jardueren garapen normala aldatzen duten justifikazio gabeko ekintza indibidualak edo talde mailakoak, ikaskideen ikaste eskubidea benetan oztopatzen dutenean.
- **Ikastetxean eta eskola orduetan ikus-entzunezko aparatuak eta/edo elektronikoak (mp3, gameboys, mugikorrak, ipod...) erabiltzea.**

** Irakasleak erabilera hori galarazteko, kendu egingo dio gailua tutore edo gurasoak bila etorri arte. Salbuespen gisa, irakasleak onartu dezake aparatu hauen erabilera, beti ere ikasgelako lan tresna gisa.*

Elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabidetzat hartzen dira:

- Hezkuntza Komunitateko **kide guztiek dute beren irudia eta intimitatea errespetatua izateko eskubidea. Eskubide honen aurkako edozein ekintza bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidetzat joko da.**

IX. OSASUNAREN ZAIN'TZA.

Higienearen aurkako ekintza da, gelan, korridoreetan, eskaileretan edo ikastetxeko beste lekuetan erretzea, alkohola edota bestalako droga edo sustantzia kaltegarriak kontsumitzea. Horregatik dago Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Hezkuntza sailak debekatua. Halaber ezingo da inola ere halako sustantziarik eskolara ekarri.

Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat hartzen dira:

- Eskola orduetan, geletan janariak edo edariak hartzea, edo baita **ikastetxeko esparruan erretzea** ere.

Elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabidetzat hartzen dira:

- Heziketa elkarteko kideen **osasunarentzat** eta osotasun pertsonalarentzat oso **kaltegarriak izan daitezkeen jokoeretara bultzatzea**, baita eredu eman ez ere, hala nola, **tabako, alkohol eta droga kontsumoen bidez**. Halaber **erabat debekatuta dago osasunarentzat kaltegarriak izan daitezkeen sustantziak eskolako instalakuntzetan gordetzea.**
- Zauriak eragiteko **arrisku larria duten liskarrak edo jokabide erasokorrak eragitea**, edo beroietan nahastea.

4. HEZIKETA NEURRI ZUZENTZAILEAK

Ikastetxeko Heziketa Elkartearen bizitza ez dago irizpide arauzale baten bidez markatua, baizik **elkarbizitzak, elkarrekiko konfiantzak eta laguntasun giroak izan behar dute nagusi**. Nola nahi ere, ikastetxea indarrean dagoen legeriaren menpe dago eta, beraz, ekintza zuzentzaileak aipatu Dekretuan adierazitakoaren arabera aplikatuko dira.

Dekretuan aipatzen den legez, **neurri zuzentzaileek helburu hezigarria izango dute**, batez ere, hala zuzendu behar den jokabidea egin duen ikaslearentzat, nola gainerako ikasleentzat. **Neurri zuzentzaileak hezkuntza-jardunaren baitan beteko dira, hainbat arlotako oinarritzko gaitasunak lortzen laguntzeko**, hala nola gizarte- eta **herritartasun**-arlokoak nahiz **autonomia** eta **ekimen pertsonalaren** arlokoak.

Jokabide ezegokiak irakasleek eta tutoreek zuzenduko dituzte, ikaslearen pertsonarekiko errespetuzko eta laguntzeko harreman positiboa mantenduz, beti ere, ondorengo neurri hauetakoren bat edo gehiagoren bidez:

- Jokabide ezegoki zehatzaren eta bere ondorioen inguruko **gogoeta**.
- Jokabide ezegokiaren **aitortza**, horren ondorioz kaltetuak izan daitezkeen pertsonen aurrean.
- Ikasketa jarduerak egitea eta jokabide zuzenaren bideak **barneratzea**.
- Hondatutako materiala ordezkatzea edo **konpontzea**.
- Jokabide ezegokiarekin lotura duen eskolako **lanen bat egitea**.

Elkarbizitzaren aurkako jokabideak zuzentzeko, zuzendariak (edo berak izendatutako ordezkariaren batek) esku hartuko luke, ondorengo jokabide hauetakoren bat edo batzuk erabil ditzake:

- Elkarbizitzaren aurkako jokabide zehatzaren eta bere ondorioei buruzko **gogoeta**, eta **zuzentzeko orientabideak**.
- **Idatzizko ohartarazpena**, bertan, tutorearen edo, bere kasuan, gaiko irakaslearen **txosten zehatza** sartuko delarik.
- **Ohartarazpena gurasoen** edo legezko ordezkarien **aurrean**.
- **Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea**, aldi baterako edo behin betirako.
- **Heziketa lanak, edo eragindako kalte materialen konponketako lanak egitea** edo beharrezkoa balitz ordaintzea, halaber, ikastetxeko jardueren hobekuntza eta garapen lanak, lan hauek elkarbizitzaren aurkako jokaerarekin zerikusia duten neurrian.
- **Ikasgai bateko edo bat baino gehiagoko eskoletara nahiz ikastetxera joateko eskubidea etetea**, ikasle adingabeen gurasoekin edo legezko ordezkoekin elkarrizketa izan arte. Neurri horrek ezin izango du hiru egun baino gehiago iraun.
- **Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubiderik gabe uztea**, ez hiru hilabete baino gehiago.
- **Eskolaz kanpo izango diren jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubiderik gabe uztea**, ez hiru hilabete baino gehiago.

Kasu guztietan ere **beharrezkoa izango da ikaslearen alde aurreko entzunaldia**. **Ikastetxeko jardueretan parte hartzeko eskubiderik gabe uzten denean, beharrezkoa izango da gurasoen** edo legezko ordezkarien **entzunaldia** ere.

Zuzendariak zuzendu ditzake, **ikastetxean elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabideak**, aurreko puntuan jasotzen diren puntuetako bat edo gehiagoren bidez, eta baita ondorengo beste hauetako edozein erabiliz ere:

1. **Heziketa lanak**, edo eskolako jarduerak hobetzeko edo garatzeko izan daitezkeenak, edo eragindako kalte **materialak konpontzeko lanak eskola-orduz kanpo egitea**.
2. **Ikasgai bat edo gehiagoren eskoletara joateko eskubiderik gabe** uztea, **hiru egunetik hogeirako tartean**, ebaluazio jarraitua galdu gabe horregatik.
3. **Ikastetxera etortzeko eskubiderik gabe** uztea **hiru egunetik hogeirako epean**, izendatzen zaizkion prestakuntza jarduerak dagokion irakaslearen kontrolpean egiteko betebeharrarekin.
4. Ikastetxez kanpoko **eskolaz kanpoko jarduera osagarrietan parte hartzeko**, edo zerbitzu jakin batzuk erabiltzeko **eskubiderik gabe** uztea, **ikasturtea amaitu bitartean** ere iraun dezakeelarik.

Artikulu honetako 2, 3 eta 4 apartatuetan jasotzen diren neurriak, erabil daitezke, elkarbizitzaren aurkako jokaera larriak zuzenduko ez balira 1. apartatuan adierazitakoak aplikatu arren.

Ikaslea, aldez aurretik, ikastetxeko elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabideengatik zuzendu behar izan bada, **behin baino gehiagotan ikasturte berean, ikaslearen matrikula beste ikastetxeren batera aldatzeko proposa diezaioke zuzendariak administrazioari**. Heziketa administrazioak erabakiko du gertakarien aurrean zer egin behar den.

Ikastetxeko elkarbizitza larriki kaltetzen duen jokabidea, **ikastetxeko irakasleren baten bortxa edo erasoaren denean, zuzenean proposa daiteke aipatu aldaketa**, ikaslea aurrez zuzendu beharrean izan ez bada ere. **Hezkuntza administrazioak erabakiko du** gertakarien aurrean zer egin behar den.

Neurri hauek hartzeko orduan, ikaslearen jokabidean eragina izan dezaketen zirkunstantzia pertsonal eta sozial guztiak hartu behar dira aintzat, irakasleei edo zuzendariari, ikaslearen eginbeharrak betetzearen garrantzia behar bezala ulertu eta baloratzeko balio diezaieten.

Hartu beharko diren gainerako izapide eta neurrietan, eta arautegi honetan jaso ez direnetan, Eusko Jaurlaritzaren, 2008ko abenduaren 16ko data duen, ikasleen eskubide eta betebeharren dekretura joko dugu.

GELATIK EGOZTEA.

Ahal dela ez da eskolatik inor egotzi behar, oso muturreko kasuetan izan ezik, kurtsoko gainerakoentzat eragozpenak eragin ditzakeelako eta ikasle berarentzat denbora galtzea delako.

Gelatik egoztearen ezinbestekoa bada, kontuan izan behar da oso zigor larria eta ezohikoa dela gelatik egoztearen, azkeneko irtenbidea dela, ez lehenbizikoa.

Gelatik egoztearen gertatzen bada, jarduera positiboren bat edo galdutako denboraren errehabilitazioa egitea proposatuko du irakasleak.

Irakasleak, era berean, **eskolara etortze-orrrian gelatik egoztearen arrazoiak idatziko ditu.**

Ikasle bat Ebaluazio berean **bi aldiz izan bada gelatik egotzia, dagokion tutoreak familiari jakinaraziko** dio.

Ebaluazio berean ikasle bat hiru aldiz izan bada egotzia eskola-jardunetik kanpo utziko da egun baterako.

Gelatik egozteak **behin eta berriro** gertatuko balira, elkarbizitzaren aurkakotzat edo ikastetxeko elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabideentzat hartuko dira.

5. JANTOKIKO ERABILERA

Jantokia, ikastetxeko beste guneak bezala, gune hezitzailea da eta ondorioz errespetuz jokatu behar da espazio honetan. Horretarako, erabilera egokia emateko asmoz eta elkarbitza arauak bete daitezcan erabilpen arautegi honetan biltzen diren xedapen guztiak zaindu behar dira.

Jantokiko erabilera: Ikastetxeko irakasle, monitore eta langile guztiek, beren hezitzaile zeregina beteaz, gelan edo ikastetxeko beste instalakuntzetan **egindako jokabide ezegokiak zuzendu ditzakete eta zuzendu behar dituzte**, zuzenean beren ardurapean daudenean, eta hitzez errieta egingo dio, unean bertan, elkarbizitzaren aurkako edo elkarbitza hori larriki kaltetzen duen jokabideren batean aurki lezakeen edozein ikasleri.

Aurrez esandakoaren kaltetan izan gabe, **zuzendariari**, edo arautegiaren arabera bere ordezt dagoenari dagokio elkarbizitzaren aurkako edo **elkarbitza hori larriki kaltetzen duen jokabideren baten aurkako neurri zuzentzaileak aplikatzeko eskumena**.

Jantokiaren erabilera eremuan gertatutakoak, eskola-jardunarekin kausa-ondorio harremana frogatzen den guztietan zuzendu beharko dira.

Ikasleei, errespetuzko tratua eskatu behar zaie, heziketa elkarteko kide guztiekiko (irakasleak, ikasleak, jantokiko langile eta monitoreak, mantenimenduko langileak,...) eta baita puntualki heziketa lanean lankide diren langile guztiekiko ere.

ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Gune hezitzailea den aldetik, erabiltzaile guztiek dute araudi honetako 1.atalean eta 2.1 atalean biltzen diren eskubide, betebeharrak eta eginbehar guztiak.

Erabilera egokia sustatu aldera hauexek dira, besteak beste, erabiltzaileek bete beharko dituzten oinarritzko jarraipideak:

- Mahai tresna guztiak modu egokian erabili.
- Jakiak eta edariak behar den bezala tratatu.
- Ilarak errespetatu.
- Egokitzen den janaria onartu eta jantoki barruan kontsumitu.
- Higienea zaindu.
- Langilei eta jantokideei errespetuz tratatu.
- Ezarritako antolaketa arauak errespetatu beharko dituzte, ondorioz, sakelekoen erabilera araudi honetan ezarritakoari jarraitu beharko diote.

IKASTETXEKO JANTOKIKO ARAUDIA

Zuzentasuna mantendu behar da kanpoko portaeran, jaterakoan eta auto-zerbitzua erabiltzerakoan. Ikastetxeko Heziketa Elkartearen bizitza ez dago irizpide arauzale baten bidez markatua, elkarbizitzak, elkarrekiko konfiantzak eta laguntasun giroak izan behar dute nagusi. Nola nahi ere, ikastetxea, indarrean dagoen legeriaren menpe dago eta, beraz, ekintza zuzentzaileak aipatutako dekretuan adierazitakoaren arabera aplikatuko dira.

JOKABIDE EZEGOKIAK

- Mahai gainean janari hondar, bandeja zein beste mahai tresna batzuk utzi...
- Jantokian ura edota janaria bota.
- Lerroetan dagokion lekutik atera edota iskanbila sortu
- Jan beharreko platerak hartzeari uko egin
- Oihukatu eta iskanbila sortu.

- Eskuak zikin (3, 4, 5 urtekoak izan ezik).
- Begirune falta
- Jantokitik janaria atera

HEZIKETA- NEURRI ZUZENTZAILEAK

- Mahai gainean utzi dutena era egokian jaso dezatela eskatu.
- Bota dutena jarraian jaso dezatela eskatu, eta ezin izango balute, txanda bukatzean.
- Lerroaren bukaeran kokatu.
- Jan beharreko kopurua adostu.
- Besteengandik aparte jarri, zergaitiak azaldu ostean.

ARDURADUNA

- Erantzun hezigarria: Ausolan. (Jantokiko arduradun eta monitoreak).
- Hutsen jasoketa: Ausolan. (Jantokiko arduradun eta monitoreak).

ELKARBIZITZAREN KONTRAKO JOKABIDEAK

- Hiru huts arinen pilaketa.
- Materiala hautsi
- Burrukak sortu edo hasi.

HEZIKETA- NEURRI ZUZENTZAILEAK

Gertatutakoa tutoreari jakinarazi, baita hartu litezkeen erabakien berri eman ere, ikasleak izandako jarreraren ondorio.

ARDURADUNA

Huts larrien berri tutoreei eta dagokion zikloko koordinatzaileari maila bitartez: Administraritzza

Hutsen jasoketa: Zikloko koordinatzailea.

ELKERBIZITZA LARRIKI KALTETZEN DUTEN JOKABIDEAK

3 huts larri edota 6 huts arinen pilaketa.

HEZIKETA- NEURRI ZUZENTZAILEAK

- Huts oso larri bat: Eskolatik kanpo ateratzeko oharra, goizeko klaseak bukatu eta arratsaldekoak hasi bitartean (2 egunetan zehar
- Bi huts oso larri: Eskolatik kanpo atera goizeko klaseak bukatu eta arratsaldekoak hasi bitartean (aste bete)

ARDURADUNA

- Huts oso larrien berri familiei eta eta aplikatu beharreko erantzun hezigarria: Koordinatzaileak (Tutore eta zikloko arduradunarekin batera)
- Hutsen jasoketa: koordinatzaileak

6. ESKOLAZ KANPOKO EKINTZETAKO ELKARBIZITZA ARAUAK

Atal honek ikastetxeko bizitzan eta kudeaketan esparru propioa duenez, **araudi berezia eta propio egokituta dauka**, hori dela eta, araudi honekin batera **eranskinetan jasota agertzen da**.

7. FUNTZIONAMENDU OROKORRERAKO ERANSKINAK

7.1 ORDENAGAILUAK ERABILTZeko JARRAIPIDEAK

- Irakasleak esango du noiz ordenagailuak piztu, beraz, **ezin dituzte gailuak euren kabuz martxan jarri**.
- **Irakasleak esandakoari jarraitu beharko diote ikasleek**, berak adieraziko baitie zein aplikaziotan sartu eta zeintzuk diren saio bakoitzaren zereginak. Beraz, **ikasleak agindutako aplikazioetan baino ezingo dira sartu. Beste programa edo aplikazioren baten premia izango balute** (deskargak egiteko, dokumentuak berreskuratzeko,...) **irakasleari baimena eskatu** beharko liokete.
- **Ekipoetan ezingo dituzte**, euren kabuz, ezelango **konfigurazio aldaketarik egin** (pantailako irudia, konfigurazioa, programak, eta abar). Salbuespen moduan, edozein inzidentzia izango balute edo aldaketaren bar sartzeko beharra balute, beti adierazi beharko liokete irakasle arduradunari, honek zerbitzu teknikoarekin harremanetan jar dadin.
- **Lehen zikloan**, Eskola 2.0 ordenagailuen armairua irekitzeko irakasleak giltza bat izango du. Eta klasearen amaieran irakaslearen erantzukizuna izango da kontrolatzea guztiak zuzen jarri direla armairuan.
- Klasearen amaieran irakaslearen erantzukizuna izango da ekipoekin sortutako arazoak apuntatzea, Drivean arazo informatikoaren orrian.
- **Bigarren zikloan**, ikasleek eta haien familiak argi izan behar dute ekipoak, dena ordaindu arte, Ikastetxearenak direla; beraz, busti, apurtu edo arduragabeko erabileraren ondorioz, zerbait gertatzen bazaie ikastetxeak neurriak hartuko dituela.
- **Lapurretak** edo **desagerpenak** izanez gero, Ertzaintzan ipinitako salaketaren agiria ikastetxean aurkezteko beharra izango dute.
- Erabiltzeleek izango dute ordenagailuan dauzkaten artxiiboak eta informazioa gordetzeko erantzukizuna, behar izanez gero dagozkien kopiak eginez. Ekipoan fromatetu beharra balego, zerbitzu teknikoak ez du ardura hori bere gain hartuko.

7.2 SAKELEKOAK ETA BESTELAKO GAILUAK ERABILTZeko ARAUAK

- 1-. Ikasleek sakelekoa erabili ahal izango du **errekreoan**. Baina **ikastorduetan**, gelan eta gune hezitzaileetan (jantokia, kapera, aldagelak, eliza etab...) erabat **debekatua** dago sakelekoa erabiltzea irakaslearen baimenarekin ez bada.
- 2-. Erabat debekatua dago beste tresna elektronikoak ikasgelan erabiltzea (argazki makina, bideokamera, musika tresnak etab...) irakaslearen baimenik gabe.
- 3-. Era berean, erabat debekatua dago ikasle, irakasle edota zerbitzuetako pertsonen irudi eta soinuen grabazioa, irakasleren baten zuzeneko baimenarekin ez bada,

ikastetxeko edozein gunetan (aldagela, zerbitzu, jantoki edota eraikineko beste edozein gunetan, patioak barne).

NEURRI ZUZENTZAILEAK:

Kurtoaren hasieran tutoria saio bat emango dugu teknologia berrien erabilera egokiaren inguruko hausnarketa burutu eta IKT-en erabilera arduratsuko jarrerak sustatu ahal izateko (Sakelekoak ere tartean).

Hezitzaile batek ikaslea baimenik gabe sakeleko zein beste tresna elektronikoko bat erabiltzen ari dela erreparatuko balu:

- Lehenengo aldiz bada, telefonoa kendu egingo dio eta tutorearen esku utziko du. Egun horretako azken ikastordua amaitzerakoan bueltatuko dio.
- Bigarren aldiz bada, irakasleak telefonoa kendu egingo dio eta tutorearen esku utziko du. Kasu honetan tutoreak bost egun lektibo gordeko du tresna. Bosgarren egunean itzuliko diolarik azken orduan. Halaber, gurasoei jakinaraziko die gertatutakoa.
- Hirugarrenez, bada, irakasleak telefonoa kendu egingo dio eta, tutorearen esku utziko du. Azken honek koordinatzaileari utziko dio gailua. Koordinatzaileak familiari deitu eta indarrean dagoen araudia aplikatuko litzateke ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabidetzat hartuz. (31. Artikuluaren barruan, m atala).

7.3 TAKILAK ERABILTZEKO ARAUAK

- Ikasle bakoitzak bi giltz izango ditu eta bere ardurapean egongo dira.
- 8:15 baino lehen lehenengo bi orduko liburuak hartzea.
- 10:00etan liburu horiek gorde eta 10:30ak baino lehen goizeko beste orduko liburuak hartzea.
- Ordenagailua daukazunean etxera kargatzeko eraman behar duzue.
- Arratsaldean ere, 14:50ak baino lehen hartzea liburuak.
- Gelaz aldatzen direnean (laborategia, GH, informatika, etab) hartu dezakete liburuak ere klaseen ordutegia errespetatzen den heinean.
- Gabonetan, aste santuan eta kurtso amaieran hustuko dira takilak.

IKASTETXEETAN BERDINEN ARTEKO TRATU TXARRAK GERTATZEN DIRENEAN JARDUTEKO PROTOKOLOA

1. SARRERA

Protokolo hau eskolako bizikidetza hobetzeko helburuarekin ikastetxeetan sustatu behar den jarduera- multzoaren zati bat baino ez da. Izan ere, **bizikidetza-arazoak ekar ditzaketen hainbat gatazka sortzen dira ikastetxeetan**. Horregatik, Ikastetxeetako **prebentzio-eredu orokorrak dira halako egoerak** modu positiboan **berbideratzeko eta** eskolan **bizikidetza egokia bermatzeko modurik onena**.

Hala ere, zenbaitetan gertakari larriak sortzen dira eta horietarako protokoloak ezarri behar dira arazoa ahalik eta era lasterrean, eraginkorrean eta ikasleentzat seguruenean konpontzeko. Nolanahi ere, kontuan izan behar da arazo mota bakoitzak (heldua / heldua, heldua / ikaslea, ikaslea / ikaslea, bakana edo errepikatzen dena...) ezaugarri bereziak dituela eta, ondorioz, modu jakin batean tratatu behar izaten direla.

2. DEFINIZIOA ETA EZAUGARRIAK

Ikastetxeetan **berehala antzeman eta tratatu behar dira** berdinen arteko tratatu txarrak; izan ere, zenbat eta lehenago antzeman, orduan eta aukera gehiago daude arazoa konpontzeko.

Horretarako, **argi definitu** behar dira *ikastetxeetako berdinen arteko tratatu txarrak* eta bestelako egoera disruptibo jakinetatik bereizi behar dira:

“Ikasle batek *erasoak pairatzen dituela edo biktima bihurtzen dela* esan ahal izateko, etengabe eta aldi batean jasan behar ditu *beste ikasle batek edo batzuek* egindako ekintza negatiboak” (Olweus, 1998).

Berdinen arteko tratatu txarrek honako ezaugarri hauek dituzte:

Beti dago botere-desoreka erasotzaile eta biktimen artean; Nahita egitea/errepikatzea: nahita egitea behin eta berriz errepikatzen den erasoaren bidez adierazten da. Eta Defentsa-gabezia/Pertsonalizazioa: ikasle bakar bat izaten da normalean tratatu txarren biktima eta horrela babesik gabeko egoeran jartzen da. Modu horretan, biktimak ez du aurkitzen bere burua babesteko adina baliabide, eta isolamendua nahiz estigmatizazioa pairatzeaz gain, autoestimua eta bere izen ona ere galtzen ditu.

Bestalde, berdinen arteko tratatu txarrak **hainbat motatakoak izan daitezke**: Norbait baztertzea, behin ete berriz norbait iraintzea, eraso fisikoak egitea, zeharka edo zuzenekoak, norbait jotzea, xantaia eta mehatxuak modu errepikakorrean egitea, sexu jazarpena edo abusua,...

Jarrera eta jokabide hauek ondorio jakin batzuk izaten dituzte:

- Biktimarentzat: eskola-porrota, trauma psikologikoa, arrisku fisikoa, gogobetetasun eza edo gustura ez egotea, barne-herstura, zorigaitza, nortasun-arazoak eta garapen orekaturako arriskua.

- Erasotzailearentzat: delituzko jokabide bihur daitekeenaren lehen urratsa izan daiteke, boterea erasoan oinarritzen dela interpreta dezake eta helduarora iristen denean ere joera bera izan. Indarkeriazko egintza gainbaloratzerara ere irits daiteke, gizartean onartzen eta saritzen den jokabidea dela pentsatuz.
- Lekuko diren ikaskideentzat: jokabide horrek bidegabekeriaren aurrean jarrera pasiboa eta eroso izatera eraman ditzake eta, ondorioz, pertsonaren balioari buruzko interpretazio okerra egin dezakete.

3. JARDUERA-PROTOKOLOA

Ikastetxeetako berdinen arteko tratu txarrei aurre egiteko jarduera-protokoloa oinarritzakoa eta aginduzkoa da, ikastetxe bakoitzak hori egokitu edo zabaldu egin badezake ere egoera bakoitzeko testuinguruaren edo berezitasunen arabera.

Ikastetxeak berdinen arteko tratu txarren esparruko jokabideren bat ikusten duen guztietan hasiko da protokoloa, bai eta ikasleren batek bere edo kideren baten kontrako balizko tratu txarren egoera bat dagoela adierazten duenean, edo ikasle baten familiak edo legezko tutoreek adierazten dutenean ere. Polizia edo epai-salaketa jartzen denean edo Arartekoari kexua aurkeztu zaiola jakinez gero. Baita Hezkuntzako Ikuskaritzak hala eskatzen badu.

Kanpoko salaketarik ez badago ikastetxeak ez du protokoloa hasi beharrik izango, datuetan eta frogetan oinarrituta uste badu jokabideak ez direla larriak, eta horiek konpondu ahal izango dituela 201/2008 Dekretuaren II. kapituluari jasotzen diren jokabide desegokiak konpontzeko neurrien bidez. Ikastetxeak mota horretako neurrien bat hartzen badu jokabide desegokiren bat dagoelako, I. Eranskinean idatzita geratuko da hori.

Beraz, zein dira protokoloa hasteko beharrik ezartzen ez duten jokabideak? Tratu txarrekin lotutako larritasun txikiko jokabideak, denbora laburrez agertu ohi direnak, irakasleen esku-hartzea eragiten dutenak, eta agertu ziren bezain bizkor desagertzen direnak. Ez dute ondorio iraunkorrik eragiten, mota larrieneko tratu txarretatik urrun daudelako.

Alabaina, jokabideek ondorio garrantzitsuak badituzte ikasleentzat, edo ezin badugu ziur jakin zer irismen izango duten, ikastetxeak aipatutako protokolo hori hasi beharko du nahitaez.

Hasiera batean protokoloa ez hastea erabakitzen bada ere, gerora erabaki hori aldatu ahal izango da egoerak okerrera egin duela adierazten badute datuek.

Protokolo honek zuzentzen du esku-hartzea, sarreran azaltzen diren honako printzipio gidari hauen arabera gauzatuko dena: tratu txarren gaineko sentsibilizazioa, prebentzioa, konfidentzialtasuna eta zerikusia duten ikasleen babesa, esku-hartze koordinatua, zuzendariaren gidaritzapekoa, sistematizazioa, eraginkortasuna eta premia, bai zerikusia duten ikasleekiko, bai eta horien familiekiko ere.

Ondorengo orrian protokoloak zehazten dituen urrats guztiak modu eskematikoan ageri dira:

1. PAUSOA.- Tratu txar izan daitezkeen jokabideak behatzea. Tratu txar posibleak jakinaraztea.

Tratu txarrak ez dira zuzenean behatzen normalean. Horregatik, **sentsibilizazioa funtsezkoa** da eta irakasleek, tutoreek eta aholkulari-orientatzaileek batez ere, eta ongi jakin behar dute zein diren tratu txarren ezaugarriak eta adierazpenak.

Zer jokabidetan jarri behar dute arreta berezia irakasleek?

Kasu hauetan, oro har, ikus ditzakegun **kanpoko seinaleak** (irainak, erasoak, etab.) icebergaren punta besterik ez dira. Horregatik, mota horretako adierazpenetan arreta jartzeaz gainera, **arreta jarri behar da ikasleren batek jarrera aldatzen bada** (umore-aldaketak, tristezia, somatizazioa, bakardadea, uzkurtasuna, hezkuntza-errendimendua murriztea, ohiz kanpoko eskola absentismoa), eta mota horretako jokabideak pairatzen egon daitekeela susmatzen badugu. Baliteke jokabide-aldaketa hori izatea tratu txarrak hautemateko aztarna hoberena.

Irakasle batek tratu txarrekin lotzen dituen jokabideak edo aztarnak ikusten baditu ohiko jarduera batean, **lankideei jakinarazi** beharko die. Eta behaketa plan bat egin dezakete denen artean.

Hasierako usteak baieztatzen badira, **zuzendaritza-taldeari jakinaraziko** zaio.

2. PAUSOA.- Zuzendariari eta zuzendaritza-taldeari jakinaraztea. Hasierako bilera. Protokoloa hasiko den ala ez erabakitzea.

Hurrengo pausoa da **gertakizunen berri ematea zuzendariari** eta zuzendaritza-taldeari. Beste **batzuetan, zuzendaritza-taldeak berak jasoko du** tratu txarren esparruko balizko egoera bati buruzko **informazioa beste iturri batzuetatik**. Iturri horiek barnekoak – ikastetxeko ikasleak, familiak, administrazioko eta zerbitzuetako langileak– edo kanpokoak –Fiskaltza, epaitegiak, polizia, Ikuskaritza, etab.– izan daitezke.

Ikasle baten **familiak zuzendaritza taldeari** bere seme-alabarekiko berdinen arteko tratu txarren balizko kasua **jakinaraziz gero, batzar horren akta jaso** eta bertan familiak gertatukoaren deskribapena islatuko da. **Akta horrek** zuzendaritzak ustezko biktimaren ziurtasuna bermatuko dituzten **behin behineko neurriak ere jasoko ditu**. Akta hori familiak eta zuzendaritzak sinatu ondoren familiari kopia bat eman beharko diote. Aktaren eredia 0. ERANSKINEan eskura daiteke.

Hezkuntzako Lege Organikoak funtsezko papera ematen dio zuzendariari bizikidetzaren kudeaketaren alorrean eta **zuzendariak koordinatu behar du** esku hartzeko **prozesu osoa**, eta hori hezigarria dela eta esku-hartzeak legezkoak direla bermatu beharko du.

Behin zuzendariari eta zuzendaritza-taldeari jakinarazitakoan, **zuzendariak lehenengo bilera batera deituko ditu tutorea edo tutoreak**, aholkularia edo orientatzailea, eta, beharrezkoa bada, baita inplikaturako ikasleen beste irakasle batzuk ere. Jazarpen sexista edo sexu-jazarpena denaren aztarnarik badago, komenigarria da generoaren, hezkidetzaren eta/edo generoindarkeriaren prebentzioaren esparruan prestakuntza duten pertsonak egotea bileran, bai eta eskola-kontseiluan gizonen eta emakumeen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra sustatzeko hezkuntza-neurriak hartzeaz arduratzen den pertsona ere.

Bileran, zer esku-hartze behar den aztertuko eta balioetsiko da tratu txarrik badagoen edo ez dagoen zehaztuko duen informazioa biltzeko. **Gainera Protokoloa hastea edo ez hastea erabakiko da.**

Idatziz jasota geratuko da dagokion aktan **zer pertsonak hartu duten parte** bileran, **zer gertakariri buruz** hitz egin duten eta **zer akordio adostu** dituzten; informazioaren konfidentzialtasuna bermatu beharko da *I. eranskinean* jaso da aktaren eredia.

Lehenengo **bilera horren berri emango dio zuzendariak** Hezkuntzako **Ikuskaritzari** bilera egiten den egun berean.

Protokoloa hasi egingo da, behin informazioa bildutakoan eta aztertutakoan tratu txarrik ez dela egon ondorioztatzen bada ere. Ez badakigu garbi behatutako jokabideak tratu txarrekin lotuta dauden edo ez, zuzendariak laguntza eskatuko dio tokiko

Berritzeguneari edo Hezkuntzako Ikuskaritzari, zer jarduera gauzatu behar diren jakiteko.

Gehienez ere bost eskola-egun igaroko dira gertakariak jakinarazten direnetik bilera egiten den egunera arte. Ondorio horietarako, eskola-eguntzat joko dira egun baliodun guztiak, astelehenetik ostiralera, irailaren 1etik ekainaren 30era arte, oporrak izan ezik, 201/2008 Dekretuaren 51. artikuluan ezartzen den eran.

Bilera horretan Protokoloa hastea erabaki izan bazen, zuzendariak jakinaraziko du **A TXOSTENA** bete behar dela nahitaez, eta Hezkuntzako Ikuskaritzari igorri behar zaiola.

3. PAUSOA.- A TXOSTENA. Informazioa biltzea eta aztertzea. Larrialdi neurriak hartzea. Familiei jakinaraztea lehenengo aldiz.

Behin **zuzendaritza-taldeak** tratu txar posibleak daudela dakienean, **gertakarien inguruko datuak eta frogak biltzen** hasiko da. Horiek aztertu ondoren, berdinaren arteko tratu txarren ezaugarriak jarraiki, ebatzi ahal izango dugu tratu txarrik badagoen ala ez. **Froga daitezkeen datuetan oinarrituta hartu behar dira beti erabakiak.** Horregatik, informazioa triangelatzeke prozedura erabilgarria izan daiteke. Informazio-iturri guztien arteko elkarguneak, bat-etortzeak, bat-egiteak eta desadostasunak bilatu behar dira. **Eskuratutako datuetan oinarrituta, ikastetxeak zehaztu beharko du berdinaren arteko tratu txarren esparruko egoerarik badagoen eta, egonez gero, zer motakoa den eta zer larritasun maila duen.**

Zuzendariak, edo kasuaren jarraipena egiteaz arduratutako ikastetxeko pertsonak, beharrezko informazioa bilduko dute jarraian azaltzen diren iturrietatik, eta **idatziz jasoko dituzte bildutako datuak.**

Zuhurtasunez jardun behar da, eta **informazioa ematen duten ikasleak babestu.**

Informazioa ateratzeko **iturriak** izan daitezke:

1. Ustez erasotua izan den ikaslea.
2. Ustez erasotzaile izan diren ikasleak.
3. Gelako tutorea eta irakasleak.
4. Pertsona erasotuaren eta/edo erasotzailearen ikaskideak.
5. Beste batzuk (beharrezko irizten bada soilik):
 - Ikastetxearekin lotutako pertsonak (jangelako zainzaileak, autobuseko laguntzaileak, eskolaz kanpoko jardueretako begiraleak, AZL, etab.).
 - Beste erakunde batzuetako pertsonak (aisialdiko hezitzaileak, Gizarte Ongizatea, Osakidetza, etab.).

Informazioa bildutakoan, zuzendariak **bigarren bilera baterako deialdia egingo dio irakaskuntza-taldeari, egoki irizten badu.** Bilera horretan zehaztuko da tratu txarrik badagoen ala ez, bai eta zer larrialdi-neurri hartuko dituzten ere, beharrezkoa bada. Bilera horren ondorioei buruzko informazioa jasoko du zuzendariak **A TXOSTENEAN.**

Beharrezkoa bada, **Behin-behineko larrialdi-neurriak** hartuko dira ustez erasotua izan den pertsona babesteko eta/edo erasoak saihesteko.

1. ***Ustez erasotua izan den ikaslearen berehalako segurtasuna bermatzeko eta beste eraso batzuk eragozteko neurriak :***
 - Ustez erasotua izan den ikaslea espezifikoki zaintzea

- Familiei laguntza eskatzea haien seme-alabak zaintzeko eta kontrolatzeko.
- Banakako tutoretzak pertsona inplikatuekin.
- Ikastetxeko heldu bat izendatzea, biktimak harengana jo dezan behar duen bakoitzean.
- Aurrez osatutako kide-taldeak biktimari laguntzeko, arrisku handieneko uneetan batez ere (sartzean, irtetean, korridoreetan, etab.).
- Irakasleen ordutegiak berrantolatzea dagokion ikasleari arreta espezifiko emateko.
- Beharrezko irizten bada, taldez aldatzea denbora batez.
- Bere burua babesteko jarraibideak ematea biktimari.
- Langile espezifikoak areagotzea.
- Hala badagokio, etxez etxeko laguntza eskatzea.
- Beste batzuk.

1. *Ustez erasotzaile diren ikasleei zuzendutako neurriak:*

- Ustez jazarle diren ikasleak espezifikoki zaintzea.
- Tutoreak edo ikasketa buruak errieta egitea bakarka.
- Garbi adieraztea ikastetxean ez direla onartzen jokabide jakin batzuk, onartzen denaren mugak adieraztea eta arazoa oso larria dela ulertaraztea.
- Familiei laguntza eskatzea haien seme-alabak zaintzeko eta kontrolatzeko.
- Beharrezko irizten bada, erasotzailea edo erasotzaileak taldez aldatzeko kautelazko erabakia har daiteke.
- Beste batzuk.

2. *Familiei jakinaraztea lehenengo aldiz. Familiekin lan egiteko jarraibideak.*

Arretaz aztertu behar dira, tratu txarren ondorioak ez okertzeko. Hasteko, kontu handiz prestatu behar dira familiei egin beharreko jakinarazpenak, eta zehazki ezarri behar dira bilera bakoitzeko helburuak. Elkarrizketetan parte hartuko duten pertsonen kopurua murriztu egin behar da, eta elkarrizketak ez dira bikoiztu behar. Familia bakoitzarekin bere aldetik lan egingo dugu. Prozesuaren amaieran edo arrazoi sendoak direla eta soilik lan egin ahal izango dugu era berean familia batekin baino gehiagorekin. Funtsezkoa da liskarrak saihestea.

Familiekiko jarrera ulerkorra erakutsi behar dugu. Ez dugu erruduntasuna azpimarratu behar. Leuntasunez eta errespetuz iradoki behar ditugu aldaketak edo egin behar ditugu proposamenak. Garbi adierazi behar dugu haien semealaben ongizatea eta garapen pertsonala, soziala eta morala direla helburu nagusiak.

Familiei beren semeari edo alabari buruzko informazioa ematean, inoiz ere ez zaie beste ikasle bati buruzko informaziorik emango.

Ikuspegi praktikotik, bilera guztietan akta jasotzea gomendatzen da; akta horretan adieraziko dira bileraren xedea, parte-hartzaileak, ondorioak, proposamenak.

Orain arte esandakoa kontuan hartuta, honako hauek egingo ditu tutoreak edo zuzendariak izendatutako pertsonak:

- Biktima izan den ikaslearekin eta haren familiarekin hitzordua jartzea, eta banakako bilera egitea, honakoetarako:

- Informazioa biltzeko eta arazoak zer irismen duen jakiteko. Gurasoak edo legezko ordezkariak jakinaren gainean ote dauden jakiteko, eta, hala badagokio, horren inguruan zer neurri hartu dituzten jakiteko.
 - Ikaslearen gurasoak edo legezko ordezkariak jakinaren gainean ez badaude, gertakarien berri emateko.
 - Hartu diren edo hartu behar diren larrialdi-neurrien berri emateko; horien iritzia eta/edo iradokizunak jasoko dira.
 - Gauza ditzaketan aukera guztiei buruzko informazioa ematea biktimari eta sendiari: salaketa jartzea polizia-etxean, salaketa jartzea fiskaltzan, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza –biktimei arreta emateko telefono-zenbakia–, gizarte-zerbitzuak eta udalerrietako berdintasun-sailak, etab.
- Ikasle erasotzaileekin eta haien familiarekin hitzorduak jartzea, bai eta gainerako inplikatuekin ere, eta banakako bilerak egitea, honakoetarako:
- Salatutako gertakarietarako buruzko informazioa emateko eta biltzeko, eta gurasoak edo legezko ordezkariak jakinaren gainean ote dauden jakiteko, eta, hala badagokio, horren inguruan zer neurri hartu dituzten jakiteko.
 - Hartu diren edo hartu behar diren larrialdi-neurrien berri emateko; horien iritzia eta/edo iradokizunak jasoko dira, betiere arazoa konpontzeko ahaleginak egiten dituztela ulertuta, ez beren kargura dagoen adingabea faltzuki babesteko ahaleginak. Ikastetxeak egin beharreko jardueren berri emateko, bai eta erasotua izan den pertsonaren familiak edo legezko ordezkariak egin ditzaketan ekintzen berri ere, garbi ikusten bada ustezko delitu-egitateak egon direla.

3. Fase honi amaiera emateko, A TXOSTENA egin behar da.

Fase honi amaiera emateko, **A TXOSTENA egin behar** da. Zuzendariak edo horrek izendatutako pertsonak egingo du txostena. *II. eranskinean* jasotzen da **A TXOSTENA** egiteko ereduak.

4. PAUSOA.- “A TXOSTENA” igortzea Hezkuntzako Ikuskaritzari.

A TXOSTENA Hezkuntzako Ikuskaritzara igorri behar da *15 eskola-eguneko epean, gertakariak jakinarazi zirenean unetik zenbatzen hasita*, tratu txarrik egon dela edo ez dela ebatzi bada ere.

5. PAUSOA.- EZ dago tratu txarren ebidentziarik: hezkuntza-tratamendua, egoeraren arabera.

Tratu txarrik ez badago ere, neurriak har daitezke, betiere, 201/2008 Dekretuan azpimarratutako bizikidetza positiboa sustatzeko ikuspegitik.

6. eta 7. PAUSOAK.- BADAUDE tratu txarren ebidentziak: prozedura espezifiko eta B TXOSTENA lantzea.

Jasotako informazioa aztertu ondoren **ebazten bada badagoela** nahikoa ebidentzia berdinen arteko **tratu** txarrik egon direla baieztatzeko, **B TXOSTENA beteko du ikastetxeak**. Hezkuntzako Ikuskaritzak hala eskatzen duenean ere bete behar du txosten hori. **B TXOSTENAK egitura desberdina** izango du tratu txarrik gertatu diren hezkuntza-etaparen arabera.

Ezartzen diren Jarduerak hezkuntza-izaera izango dute, bizikidetza positibo bat gauzatzeko oinarriak sendotuko ditugu, berdinen arteko tratu txarrik onartzen ez duen giro sozial bat sortzeko ikastetxean. Ikasleen ezaugarrien arabera hartuko dira erabakiak.

Prozesu osoan zehar zaindu behar ditugu nahitaezko konfidentzialtasuna eta datuen babesa.

Prozedura desberdina da Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan:

- a) **Lehen Hezkuntzan, informazio gehiago bildu behar** ote den balioetsiko da eta jarduera planak zehaztu behar ditu **eskuhartze hezigarriak**. **Banakako tratamendua** bermatu behar da inplikaturako agente guztiekin eta **kontutan hartuko ditugu ikasleen ezaugarri eta egoera guztiak**, eragina izan dezaketelako sortutako gertakarietan.

BILERA, INPLIKATUTAKO IKASLEEN FAMILIEKIN. Komenigarri irizten bada, bilerak egin ditzakegu berriz ere inplikaturako ikasleen familiekin, izan ere, elkarrizketa horietan datu baliagarriak bil ditzakegu jasotako (gertaeren testuingurua zehazteko eta horiek zer dakarten ulertzeko).

Nahitaezkoa da hartutako neurriak eta prozesuaren bilakaera etengabe ebaluatzea. Beraz, **hasieran proposaturako jarduera-plana aldatu egin daiteke**, kasuaren bilakaeraren arabera. Aldaketarik eginez gero, Hezkuntzako Ikuskaritzari jakinarazi beharko zaio.

- b) **Bigarren Hezkuntzan, lehenik** ohiz kanpoko neurri gisa, 201/2008 Dekretuko IV. Kapituluan ezartzen duen **prozedura bete** behar dugu. **Ondoren, adiskidetze** edo konpontze neurriei heldu beharko zaie: helburu hezigarria sustatzeko honako neurri hauek hartu behar dira: arau-hausleak edo haren gurasoek edo legezko ordezkariak jokabidea desegokia izan dela onartzea, pertsona minduari barkamena eskatzea, eta kalteak konpontzea, kalteak konpontzeko neurrien artean eragindako kalteen zerbatekoa ordaintzea barne.

Prozedura bertan behera utziko da baldin eta adiskidetzea gauzatu bada, edo inplikaturakoen konpontzeko konpromiso fidagarria hartzen bada.

JARDUERA-PLANA eta JARRAIPENA eta EBALUAZIOARI dagokienez, Lehen Hezkuntzarako ezarritako jarraibide berak beteko dira.

B TXOSTENA igorri ondoren, ikastetxeko zuzendaritza arduratuko da jarduera planean aurreikusitako neurriak ezartzeaz. Lehen aipatu dugun eran, jarraitutako prozedura ebaluatu ahal izango da, eta hobekuntza-proposamenak egin.

8. PAUSOA.- B TXOSTENA igortzea Hezkuntzako Ikuskaritzari.

Txosten hori egingo da baldin eta *A TXOSTENEAN* zehaztutako berdinen arteko tratu txarren ebidentziak aurkitu baditu ikastetxeak, edo hezkuntzako ikuskariak hala eskatu badu.

***B TXOSTENA* Hezkuntzako Ikuskaritzari igorri behar zaio beti.**

9. PAUSOA.- Beste instantzia batzuei jakinaraztea, hala komeni bada.

Kasua bereziki larria delako, edo delitua egin dela uste delako, kanpoko instantziei jakinarazi behar bazaie, **5. atalean aipaturako irizpideak jarraituko ditu ikastetxeak**. Ildo beretik, 201/2008 Dekretuaren 75. artikuluan azaltzen da zer jarraibide bete behar diren gertakariak **Fiskaltzari jakinarazteko**.

10.- PAUSOA.- Kasua amaitzea.

Zuzendaritzak uste duenean modu egokian zuzendu duela egoera, idatziz jakinaraziko dio erreferentziazko ikuskariak.

Oharra: Dokumentu hau protokoloaren laburbena da. Dokumentua osorik nahi izanez gero Elkarbizitza/araudiak/TratutzarraK karpeta dago. Halaber, karpeta horretan eskegita daude protokoloak eskatzen dituen ereduak eta txostenak betetzeko materialak, ERANSKINAK izenarekin. Horrekin batera ISVE-k 2012an egindako ikerketa ere badago eskegita.

4. ZIBERJAZARPENA

Ziberjazarpena garrantzi handiko fenomeno da, bere hedadura, ondorioen larritasuna eta arazoari aurrea hartzeko eta heltzeko zailtasunak direla eta. Hori dela eta, gure ikastetxeko lehentasun nagusietako bat da ziberjazarpena tratatzea. Haurren eta nerabeen artean jazotzen bada, ondorioak lazgarriak izan daitezke, ahalmen handiko eguneroko zenbait teknologia (Internet eta telefono mugikorra) kalte egiteko asmoz erabiltzearen emaitza baitira.

Eskolan jazotzen den ala ez gorabehera, hezkuntza-erkidegoak jakin behar du zein den modurik onena ziberjazarpena antzemateko, hari aurre egiteko eta hura errotik desagerrarazteko. Hartara, Internet egokiro erabiltzen lagunduko du, eta ikasleen ahalik eta garapen onenari bide emango dio. Hala ere, hori ez da erraza, teknologia berrien bidezko jazarpenak oso ezaugarri bereziak baititu, hala nola **anonimotasuna, berehalakotasuna, kate-efektua eta bitartekoen eta prozeduren eskuragarritasun eta aniztasun handia.**

4.1. DEFINIZIOA:

Ziberjazarpena IKTen bitartez egiten da; hortaz, edozein tokitatik eta edozein unetan egin, jasan eta ikus daiteke. Ziberjazarpena on-line edo telefono mugikorraren bidez egiten denean, biktimaren eremu pertsonala inbaditzen da askotan, asmo txarrekoa ez den ekintza bat -txantxa bat, adibidez- oso gogaikarria izan daiteke, edo mingarria, ekintza jaso duenarentzat; horrelako egoerak eragin ditzakete honako hauek, besteak beste: ekintza egiten duenak egindakoa ez pentsatzeak eta egindakoa ez ebaluatzeak, edo ekintzaren benetako ondorioak edo izan ditzakeen ondorioak aurreikusteko gai ez izateak; edo jasotzaileak edo bestelakoek gertakariak nola hartuko dituzten gaizki interpretatzeak edo gutxiesteak.

4.2. ROLAK:

Erasotzailea, eraso egiten duena.

1. Erasotzailearen indartzailea, eraso bultzatzen duena.
2. Erasotzailearen laguntzailea, eraso egiten duena babesten duena.
3. Biktimaren defendatzailea, biktimari biktima-egoeratik irteten laguntzen diona edo irten dadin laguntzen saiatzen dena.
4. Kanpoko, dinamikan inola ere parte hartzen ez duena.
5. Biktima, jazarpena jasaten duena.

4.3. GAILUAK:

Jazarpena zabaltzeko baliagarri izaten dira askotariko gailuak (finkoak edo eramangarriak; zehazki, telefono mugikorrek, mahai gaineko ordenagailuak edo ordenagailu eramangarriak, kontsolak, kontsola eramangarriak eta abar), askotariko kanalak (Internet eta telefono mugikorrek) eta askotariko aplikazioak (sare sozialak, berehalako mezularitza, txatak, posta elektronikoa, ikus-entzunezko edukiak dituzten webguneak, bideojokoak, SMSak, MMSak eta abar).

4.4. Ziberjazarpen-MOTAK

Ziberjazarpena, funtsean, zeharkako jazarpenzat hartzen da; hiru motatako jazarpenaren bidez gauza daiteke: zirikatzea, bazterketa eta manipulazioa.

1. **Zirikatzen** denean, pertsona bati buruzko irudi edo bideo iraingarriak bidaltzen dira.
2. **Bazterketa** gertatzen da, besteak beste, ingurune publikoetan behin eta berriz jazartzen denean edo mespretxuzko iruzkinak edo zurrumurru iraingarriak bidaltzen direnean horiek zabaltzeko helburuarekin; eta talde osoaren foro, txat edo plataformetarako sarbidea ukatzen zaionean biktimari.
3. **Manipulazioa** deritzo plataformetan (sare sozialetan, adibidez) aurkitutako informazioa behar ez bezala hedatzeari plataformetako kideen artean, edo beste pertsona baten ezkutuko zenbakia erabiliz (nortasunaren ordezkatzeari) sartu eta haren izenean kalte eragin diezaioketen ekintzak egiteari, eta abar.

4.5. ZER EGIN:

- I. **Ikastetxeak beren ikasleen garapena sustatzeko betebeharra du.** Beraz, esku hartu behar du ikastetxeko ikasleren bat ziberjazarpen-egoera bat jasaten izan daitekeelako susmoa duen edo dakien bakoitzean.

II. ARDURADUNEI JAKINARAZTEA.

Eskola-elkarteko edozein kidek (irakasleak, ikasleak, familiak eta irakasle ez diren langileak) **susmoren bat** duenean, seinale arrazoizkoren bat dagoela uste duenean edo berariaz dakienean ziberjazarpen-egoera bat gertatzen ari dela, ikastetxeko Zuzendaritzari **jakinarazteko** betebeharra du. Hain zuzen ere, pertsona edo agintari ororen betebeharra da agintaritzari edo agenteei jakinaraztea adingaberen batengan eragina izan dezakeen arrisku-egoera oro eta, behar badu, berehala laguntza eman behar dio. Konfidentzialtasun zorrotzez jokatu behar da beti.

III. TUTOREAREKIN KOORDINAZIOA:

Susmoren bat izanez gero, tartean den **ikaslearen tutoreak, zikloko koordinatzailearen laguntzarekin eta irakasle-taldearekin** batera, **koordinatu** behar ditu susmoa benetakoa den ala ez egiaztatzen lagunduko duten beharrezko ekintzak.

Tutoreak eta zikloko koordinatzaileak, irakasle-taldearekin batera, koordinazio-lana egingo du. Horrek, baina, ez du esan nahi soilik pertsona horiek inplikaturik direnik prozesuan; hala ere, tutoreak antolatu behar ditu hartu beharreko neurriak, lehen ekinaldian, egoki jotzen badira (tartean den ikaslearen nortasuna konfidentzialtasunez trataturik da). Prozesu horretan beti gogoan izan behar da oso garrantzitsua dela berehala jardutea, eta erreferente izan behar dira honako hauek: ikastetxeko orientatzailea edo aholkularia; Berritzeguneko erreferentziatzeko aholkularia; Bizikidetzeta Plana; eskubide eta betebeharren Araudia; Estatuko eta autonomia-erkidegoko araudi osoa, ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzkoa; eta eskola-umeen arteko tratatu txarren kasuetan jarduteko protokoloa, kasuan kasu.

Behin ziberjazarpen-egoera posiblea egiaztatu denean, ikastetxeak lanean hasi beharko du berehala eta hiru jarduera-ildotan aldi berean: **balioztatzea, jakinaraztea eta babes-ekintzak**.

4.6. BALIOZTATZEA.

Balioztatze-prozesu horren ezaugarri izan behar du **modu neurrizko eta patxadatsuan eta inguruabarretara egokituta jardun behar dela**. Presak ez du prozesuaren ezaugarri izan behar, baina **zolitasuna eta azkartasuna** oso lagungarri dira prozesuan. Ziberjazarpena-kasuek ondorio larriak izan ditzakete eta, beraz, gure arreta osoa eta irmotasuna behar da egoera horietan. Hala ere, horrek ez du esan nahi bat-bateko erantzunak edo erantzun alarmistak eman behar direnik, ez baitira lagungarri ustez tartean diren pertsonak eta haien familiak izan behar dira ezagutza-iturri.

Ustezko biktimarekin elkarrizketa egiten denean, honako hauek egin ditzan saiatu behar da, bereziki:

- Gertatu den guztia eta uneko egoerara iristeko zer gertatu den azter dezala.
- Jasaten ari den jazarpenaren edukia azter dezala, eta ikus dezala ea eduki horrek korrelaziorik duen nolabaiteko loturarekin, harreman sentimentalekin edo pertsonaren batekin izan duen maitasun- eta/ edo sexu-harremanekin.
- Identifika dezala zein gertaera zehatz jasan duen, eta egoera eragin duen pertsona edo pertsonak ezagutzen dituen ala ez.
- Adieraz dezala ustezko jazarpena zein plataformaren bitartez gertatu den (finkoa edo mugikorra), zein bitarteko erabili diren (Internet, telefono mugikorra) eta zein aplikazioz baliatu diren (sare sozialak, berehalako mezularitza, webguneak -hala nola, youtube-, foroak, blogak, posta elektronikoa, testu- edo multimedia-mezuak telefono mugikorren bitartez eta abar).
- Lagun dezala ikusgai dauden edo aurki daitezkeen probak identifikatzen eta gordetzen.
- Ezinbestekoa da uneoro laguntza eskaintzea, behin eta berriz esatea bera ez dela gertatzen ari zaionaren errudun.
- Era berean, gomendagarri da ustezko biktimaren familiarekin ere banakako elkarrizketa egitea.
- Hezkuntzako Ikuskatzailetzari emango dio egoeraren berri.

4.7. FAMILIARI JAKINARAZTEA:

Zuzendaritzari jakinarazi behar zaio, eta hark ikuskatzaileari. Balioztatze-prozesuaren eta berehalako neurrien berri emango dio ikuskatzaileari. Era berean, oso garrantzitsua da gertatutakoan ustez tartean diren ikasleen familiei ere jakinaraztea, prozesuan koordinazioa eta komunikazioa izan daitezen familiaren eta ikastetxearen artean. Nolanahi ere, familiaren eta ikastetxearen artean lankidetzaz izatea da garrantzitsua.

Zuzendaritzak eta tutoreak koordinatu behar dute prozesu hori guztia. Familiei jakinarazi behar bazaie, hobe da ikaslearen tutorea biltzea familiarekin.

4.8. BABES EKINTZAK: Nola jokatu ziberjazarpen-kasuetan.

Biktimarekin hartu beharreko neurriak: Behin biktimizazio-egoera egiaztatzen denean, tutoreak (irakasle-taldearekin batera), zuzendaritza-taldeak eta komenigarri joko diren aholkulariek balioztatu behar dute ea egokia den ala ez berriazko zenbait neurri hartzea. Neurri horiek, ikasle guztiarekin egindakoekin batera, indartu egingo dute ikastetxearen erantzuna, **xedetzat hartuta jazarpen-egoera geldiaraztea, biktimari laguntza ematea, segurtasuna eta laguntza ematea eta lagungarri izan dakizkiokeen zenbait trebetasun lantzea.**

1. **Jazarpena amaitzea:** Kasu guztietan beharrezko da berehala desagerraraztea jazarpen-egoerak berriz gertatzeko arriskua.
2. **Biktima babestea:** Indartu haren segurtasun pertsonala.
3. **Gorde** gertatzen ari denaren **frogak**.
4. **Egindako kaltea konpontzea** eta hezkuntza-neurri zuzentzaileak ezartzea erasotzaileei; neurri horien artean hezkuntzakoak gailendu behar dira. Nola- nahi ere, beti zainduko da ikastetxeko kulturarekiko koherentzia eta ikastetxeko araudia beteko da.

4.9. BESTE EKINTZA BATZUEN SUSTAPENA:

Ikastetxean ziberjazarpen-kasuren bat gertatzen bada, honako ekintza hauetako zenbait sustatuko ditugu:

1. **Gogoeta orokorra**, ikastetxeko bizikidetzaren kalitateari buruz.
2. **Tutoretza Plana eta Bizikidetzaren Plana** berraztertzea.
3. **Bitarteko elektronikoen bitartez** (Internet edo telefono mugikorrek) sortutako **gatazkak konpontzeari buruzko prestakuntza** ematea irakasleei, familiei eta irakasle eta hezitzaileei.
4. **Ikasleei prestakuntza ematea IKTak** modu positiboan erabil ditzaten, eta kritiko izan daitezkeen sexua eta/edo beste edozein izaera dela-eta duintasun txikiago edo handiagotzat jotzen dituzten edukiekiko, edo sexu-objektu soiltzat jotzen dituztenekiko; eta kritiko ager daitezkeen, halaber, pertsonen eta, bereziki, emakumeen kontrako indarkeria justifikatzen, hutsaltzen edo indarkeria erabiltzera bultzatzen dutenekin.
5. **Ikasleen batzordeak** sortzea, on-line eta off - line egiten duten bizikidetzaren hobetzeko inplika daitezkeen .
6. Salaketak, erreklamazioak eta kexak jasotzeko egiturak eta baliabideak sortzea eta hedatzea.

Oharra: Dokumentu hau protokoloaren laburbena da. Dokumentua osorik nahi izanez gero: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dif11/eu_5613/adjuntos/es_kola_jasarpina_gida_2015.pdf

ESKOLAZ KANPOKO EKINTZETAKO ELKARBIZITZA ARAUAK

SARRERA

Arautegi honek, beraz, gizarte demokratikoak bereak dituen askatasuna, errespetua, tolerantzia, integrazioa, partehartzea eta kritika ahalmena sustatu behar ditu. Baina baita, norbere gaitasunak garatzeko erantzukizuna eta besteen zerbitzuan jartzeko ahalmena ere.

Dokumentu honetako arauak, adierazitako printzipioen zehaztapen praktikoa eta proposatutako helburuak lortzeko laguntza eraginkorra izatea nahi da.

Lehen hezitzaileak gurasoak direla aintzat hartuz eta lan horretan gu haien lankide garena, arrazoi horregatik, **arautegia ezartzerakoan informatuta egon behar dute** (arautegia dagoela adieraziz, jokatzeko moduz informatuz...) betetzeko moduei dagokienez, betebeharrak gertatzen direnean beren seme-alaben jokabidearen aldetik.

Neurri zuzentzaileak ahal den eperik laburrenean aplikatu behar dira, bere helburua hezitzailea delarik funtsean, nola jokabide ezegokiaren erantzule den ikaslearentzat, hala gainerako ikasleentzat.

Ezinbestekoa da gurasoek neurri zuzentzaileak berresten laguntzea, gure lehen heziketa lana oztopatzen duten ikasleen oinarrizko gaitasun sozialak eta herritar mailakoak lortzeko.

Ikasle guztiek dute, arautegi horretan aitortzen diren balioak eta printzipioak ezagutzeko eskubidea eta betebeharra, eta baita beraietan prestatzekoa ere.

Ikasleak beren eskubideez baliatuko dira, beren betebeharren eta heziketa elkarteko gainerako kideen eskubideen aitortzaren eta errespetuaren kaltetan izan gabe.

Zuzentzekoak izan daitezkeen jokabideak, heziketa elkarte osoak ezagutzea bermatze aldera, **ikasturte bakoitzaren hasieran, Eskolaz Kanpoko Ekintzetako arduradunen bitartez, ekintza hauetan parte hartzen duten ikasle guztiei gogoraraziko zaie dokumentu honen edukia**, eta baita beren gurasoei edo legezko ordezkariari ere ikastetxeko WEB orriaren bidez..

- Adina eta hezkuntza maila aintzat hartuz, Lehen Hezkuntzako 4.maila bitartean, araudi honetan ezarritako betebeharrak ez betetzea, jokabide ezegokitzat hartuko da soilik, inolako prozedura formalen menpe jarri gabe, entrenatzaile, monitorea, irakasle eta EKE arduradunek zuzenduko dute.
- Lehen Hezkuntzako 5.mailatik aurrera ikastetxeek, izaera ezohikoan eta hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzaren baimenez, Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako diren edo larriki kaltetzen duten jokabideei dagokienez, era orokorrean ezarria dagoena aplikatu ahal izango dute, berorren aplikazioa derrigorrezkoa delarik 14 urtetik aurrera.

1.- Eskolaz Kanpoko Ekintzetako PARTEHARTZAILEEN ESKUBIDEAK

1.1.- HEZIKETA INTEGRAL BATEN ESKUBIDEA

Legedia ezagutzeko eskubidea eta betebeharra.

Ikasle guztiek dute, beren adinak baimentzen duen neurrian, indarrean dagoen legedian onartutako balioak eta printzipioak ezagutzeko eskubidea eta betebeharra, eta baita horietan prestatzekoa ere.

1. **Beren nortasunaren garapen osoa lortzen lagunduko dien prestakuntzaren eskubidea.**

Eskubide honek esan nahi duenaren zenbait adibide aipatzen dira:

- **Eskubideen eta askatasunen errespetuan** eta tolerantzia-jardunean **prestatu**.
- **Afektibitatea, norbere autonomia, auto-estimua eta besteekin harremanak izateko ahalmenaren garapena.**

2. Eskubideak:

- **Ikasleek** eskubidea dute beren **dedikazioa, ahalegina eta errendimendua objektibotasunez aitortuak eta baloratuak izan daitezzen.**

3. Bere kontzientzia askatasunaren eta bere ideologia, erlijio eta etika mailako uste sendoen errespetu eskubidea.

Eskubide hau honako hauen bidez bermatuko da:

- **Ikasleei era guztietako manipulazio ideologiko edo propaganda mailakoa saihestuko dien hezkuntza ematea.**
- **Ikasleen kritika ahalmena sustatzea.**
- **Ikastetxeko eta Eskolaz Kanpoko Ekintzen Hezkuntza Proiektuari buruzko informazioa ematea.**

4. Ikasleen osotasun fisikoa, psikikoa eta morala eta bakoitzaren duintasuna errespetatuak izateko eskubidea. Inoiz ez zaie tratu umilgarri edo laidogarririk egingo.

5. Orientazioa jasotzeko eskubidea.

1.2.- ESKOLA OREKATZAILE BATEN ESKUBIDEA

- 1. Ondorengo arrazoiengatik ez diskriminatua izateko eskubidea**, jaiotza, arraza, hizkuntza, sexua, ahalbide ekonomikoa, maila soziala, eta politika, moral edo erlijio mailako uste sendoak, edo baita ezintasun, fisiko sensorial edo psikikoak ere, elkarbizitzako araei arreta berezia jarritz.
- 2. Ikasleek babes sozialerako eskubidea dute**, Eskolaz Kanpoko Ekintzen eremuan.

1.3.- PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA

- 1. Ikastetxeko Eskolaz Kanpoko Ekintzen funtzionamenduan eta bertako bizitzan**, eskola jardueretan eta berorren kudeaketan **parte hartzeko eskubidea**, indarrean dauden heziketa legeen eta geure arautegiaren arabera.
- 2. Ikasleek adierazpen askatasunerako eskubidea dute**, desadostasun adierazpena barne, gertakari akademiko, kultural edo sozialetan. Eskubide hau, heziketa elkarteko kide guztien eskubideen kaltetan izan gabe eta pertsona eta erakunde guztiek merezi duten errespetuarekin erabili behar da.
- 3. Ikasleak Ikastetxean biltzeko aukera izango dute**, eskolako edo eskolaz kanpoko jardueretarako, hauek heziketa edo prestakuntza helbururen bat baldin badute. Horretarako, dagokion baimena eskatu beharko dute.

Eskolaz Kanpoko Ekintzetan parte hartzen duten ikasleen betebeharra da jarduera hauek guztiak errespetu eta eraginkortasun giroan igarotzea.

2.- IKASLEEN BETEBEHARRAK

2.1.- GAINERAKOAK ERRESPETATZEKO BETEBEHARRA

Ikasleek, Heziketa Elkarteko gainerako kideen eskubide eta askatasunen jarduna errespetatzeko betebeharra dute.

Betebehar hori honako **eginbehar** hauetan zehazten da:

1. **Ikastetxeko eta gainontzeko ikastetxeetako Heziketa Elkarteetako kide guztien kontzientzia askatasuna, ideologia, erlijio eta etika mailako uste sendoak eta baita haien duintasuna, osotasuna eta intimitatea ere errespetatu behar dira.** Gerta litezkeen gatazken aurrean bide baketsuak bakarrik erabiliko dira, ikaskideekin beti tolerantzia eta solidaritate jarrerak mantenduko dira eta heziketa elkarteko gainerako kideen eskubideen jarduna indartuko da.
2. **Ikasleek ez dute erabiliko** ikastetxeko eta beste ikastetxeetako heziketa elkarteko gainerako kideenganako **inolako adierazpen iraingarri, mehatxuzko edo gaizki esatekorik.**
3. **Ikasleek eskolaz kanpoko edozein eremutan ezingo dute erabili grabazio bitartekorik,** ikastetxeak berak programatutako jardueren kasuetan izan ezik. Kasu hauetan ere, heziketa elkarteko kideei ezingo die ezer grabatu ez beren gogoaren kontra, ez beren onespren espresik gabe.
4. **Ikastetxeko edo beste ikastetxeetako Heziketa Elkarteko kiderik ez diskriminatu,** jaiotza tokia, arraza, sexua, ideologia, sexu-joera, hizkuntza, kultura, erlijioa edo beste ezein zirkunstantzia pertsonal edo sozialen arrazoiz.
5. Ikastetxeko eta Eskolaz Kanpoko Ekintzetako **Heziketa Proiektua errespetatu.**
6. Ikastetxeak beren eskura jartzen dituen **instalakuntzak, altzariak eta materialak errespetatu eta behar bezala erabili.**
7. **Aktiboki parte hartu eta lan egin** ikasketan eta Ikastetxeko elkarbizitzaren garapen onena lortzeko.
8. Ikastetxeko eta beste ikastetxeetako **heziketa elkarteetako gainerako kideen ondasunak eta beren gauzak errespetatu eta gainerako materialak baldintza egokietan mantendu, erabili ahal izateko.** Ikasleen erantzukizuna da instalazioetan, altzarietan edo ikastetxeko materialetan, edo ikasleen gauzetan, egindako kalteak konpontzea, nahita edo utzikeria larriaz eginak izan badira. Horren ordainez, beharrezko konponketen gastuen arduradun egin daitezke, gurasoak edo legezko ordezkariak hauen erantzule ordezkatzaille direlarik.
9. **Ikastetxeko araudia orokorra bete.**
10. Ikasleek, ikastetxeak ezarritako heziketa neurri zuzentzaileetan sarturik dauden ekintzak bete behar dituzte..

2.2.- Eskolaz Kanpoko Ekintzetan PARTE HARTZEKO eta IKASTEKO BETEBEHARRA

Ikastea eta parte hartzeko konpromezua izatea, ikasleen oinarrizko betebeharra da. Ondorioz, Eskolaz Kanpoko Ekintzetan beren ahalmen pertsonalei eta ematen diren ezagutzei probetxua ateratzea eskatzen da, beren buruen garapen onena. Betebehar orokor hau ondorengo eginbeharretan zehazten da:

1. **Eskolaz Kanpoko Ekintzetara joan, egutegian erabakitako jardueretan parte hartu eta ezarritako ordutegiak errespetatu.** Ikasle bat ekintza batera sarri falta bada Eskolaz Kanpoko Arduradunen jakinean jarriko du entrenatzaile, monitore edo irakasleak.
2. **Eskolaz Kanpoko Ekintzetako irakasleak, monitoreak edo entrenatzaileak arretaz entzun eta proposatzen dituen jarduerak egin.**
3. **Monitore, entrenatzaile edo irakasleak agindutakoa egin, agindutako epean eta moduan.**
4. **Taldekieen jarduna errespetatu.**
5. **Solidarioa izan, ekintza desberdinetan edo ikasgelan, denen probetxurako giroa sortzeko, geletako jokabide aztoratzaileak saihestu.**

3.- ELKARBIZITZA ARAUAK

Adierazitako edozein eginbehar ez betetzea beti da, gutxienez, jokabide ezegokia, zuzendu egin beharko dena kasu guztietan, eta elkarbizitzaren aurkako jokaeratzat edo elkarbizitza larriki kaltetzen duen jokaeratzat hartuko da, bere eskubideen jardunak eta eginbeharrak betetzeak heziketa elkarteko gainerako kideei eragiten dielako.

Eskolaz kanpoko Ekintzetako Ikastetxeko irakasle, monitore eta entrenatzaile guztiek, beren hezitzaile zeregina beteaz, gelan edo ikastetxeko beste instalakuntzetan **egindako jokabide ezegokiak zigortu ditzakete eta zigortu behar dituzte,** zuzenean beren ardurapean daudenean, eta hitzez errieta egingo dio, unean bertan, elkarbizitzaren aurkako edo elkarbizitza hori larriki kaltetzen duen jokabideren batean aurki lezakeen edozein ikasleri.

Aurrez esandakoaren kaltetan izan gabe, **zuzendariari,** edo arautegiaren arabera bere ordezt dagoenari dagokio elkarbizitzaren aurkako edo **elkarbizitza hori larriki kaltetzen duen jokabideren baten aurkako neurri zuzentzaileak aplikatzeko eskumena.**

Eskolaz kanpoko jardueran gertatutakoak, eskola-jardunarekin kausa-ondorio harremana frogatzen den guztietan zuzendu beharko dira.

Ikasleei, errespetuzko tratua eskatu behar zaie, heziketa elkarteko kide guztiekiko (irakasleak, entrenatzaileak, irakasleak, garbiketako langileak, mantenimenduko langileak, hizlariak,...) eta baita puntualki heziketa lanean lankide diren langile guztiekiko ere.

3.1.-PUNTUALTASUNA IKASTETXEKO HEZIKETA EKITALDIETARA ETORTZERAKOAN (Entrenamenduak, partiduak, klaseak,...).

Garrantzitsua da behartzea bere alderdi hezitzailegatik. Puntu honetan zorrotzak izan behar dugu ikasleekin eta geure buruarekin. **Monitore, entrenatzaile eta irakasleak dira bere gelako puntualtasunaren arduradun, eta bidezko mugen barruan lortu behar du.**

- **Jokabide ezegokiak** dira:

Justifikatu gabeko puntualtasun falta.

Errepikatuak diren puntualtasun falten kasuan, monitore, entrenatzaile edo irakasleari dagokio, hasiera batean, parte hartzea.

Entrenatzaile, monitore edo irakasleak ikaslearekin eta bere familiarekin hitz egingo du, jokabide hori zuzentzen saiatzeko, neurri zuzentzaileetara iritsi baino lehen. Gaiak izaera larriagoak hartuko balitu, Eskolaz Kanpoko Arduradunei jakinaraziko zaie, eta kontsulta egingo du hartu beharreko neurriak hartzeko.

3.2.- ENTRENAMENDU, PARTIDU eta ESKOLETARA ETORTZEA.

Entrenamendu, partidu eta eskoletara etortzea eta ikastetxeak antolatutako eta/edo sustatutako ekitaldietara joateko konpromezua beharrezkoa da.

- **Jokabide ezegokiak** dira:

Entrenamendu, partidu eta eskoletara, justifikatu gabe egindako faltak.

Entrenatzaile, monitore edo irakaslea izango dira ekintzetara ez-etortzeen kontua eroango duena. Azaldu egin behar dira falten zergatiak partehartzailearen edo familiaren bidez.

3.3.- ENTRENATZAILE; MONITORE, IRAKASLE ETA IKASTETXEKO LANGILEEI ERRESPETUA.

- **Jokabide ezegokiak** dira:

▪ Monitore, entrenatzaile, irakasleen edo agintari akademikoen **esanak ez betetzea**, horrekin batera, mespretxu, irain edo nahita egindako diziplina ezik ez dagoenean, eta baita beren zereginetan diharduten ikastetxeko gainerako langileen oharrei kasurik ez egitea ere.

▪ **Heziketa elkarteko kideen aurkako jarrera**, keinu edo begirunerik gabeko hitzak.

▪ **Ikastetxeko langileei gezurra esan edo gezurrezko informazioa ematea**, heziketa elkarteko kideren bati kalte egiten ez diotenean.

- **Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat hartzen dira:**

Eskolaz kanpoko arduradunei, irakasleei, monitoreei eta entrenatzaileei egindako **desobedientzia ekintzak**, diziplinarik ezarekin edo adierazpen iraingarri, mespretxu, erronka edo mehatxuekin batera doazenean, edo baita beren zereginetan diharduten ikastetxeko gainerako langileei ere.

▪ Ikaskideen edo **heziketa elkarteko beste kideen aurkako mehatxu edo iraintzeko adierazpideak**, edo baita heziketa elkarteko gainerako kideen aurkako keinu edo jarrerak, zalantzarik gabe, eraso ahalegin edo mehatxu gisa uler daitezkeenean.

▪ **Heziketa elkarteko edozein kideren aurkako eraso fisikoa**, ikastetxeko elkarbizitza larriki kaltetzeko jokabidetzat har ez daitekeenean.

- **Elkarbizitza larriki kaltetzen** duten jokabidetzat hartzen dira.

▪ Diziplina ezaren edo obedientzia ezaren ekintza esplizituak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitearekin batera, eta baita heziketa elkarteko kideen aurka oso iraingarri edo mingarritzat hartzen diren adierazpideak ere, hitzez, idatziz edo baliabide informatiko edo ikus-entzunezkoen bidez eginak.

3.4.- KIDEEI ERRESPETUA

Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat hartzen dira:

- **Bestearen ohore, intimitate eta irudiaren eskubideak ez errespetatzea**, berak aurrez berariaz adierazitako onespenerik gabe grabazio-bideak erabiliz.
- **Besteari, indarkeria fisikoa erabili gabe, berak eskubidea duen zerbait egitea eragozte**a, era berean, indarkeria erabiltzera iritsi gabe, bere borondatearen aurkako zerbait eginaraztea.
- **Jokabide ausartegiengatik arriskua sortu**, zauri fisikoak eragin ditzaketen objektuak erabiliz.
- **Diskriminazioa suposa dezakeen edozein ekintza edo jokabide**, jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun egoera, kultura, erlijioa, sinismena, ideologia edo bakoitzak izan dezakeen beste edozein egoera edo zirkunstantzia dela bide.
- Aurrez adierazitako jokabide ezegokietako baten errepikapena, hiruhilabeteko berean hiru aldiz izateraino.

Elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabidetzat hartzen dira:

- **Heziketa elkarteko gainerako kideen aurkako eraso fisikoa, zauritzeko arrisku larriarekin.**
- **Bestearen ohore, intimitate eta irudiaren eskubideak ez errespetatzea**, berak aurrez berariaz adierazitakoaren kontra grabazio-bideak erabiliz.
- **Elkarbizitzaren aurkako diren jokabide oro**, elkartearen edo nahitako publizitatearen zirkunstantziak bat egiten badute, dela ahoz, idatziz edo informatikaren bidez, edo baita eskola-jazarpen egoeraren batean parte hartzen dutenean ere.
- **Diziplina ezaren edo obedientzia ezaren ekintza esplizituak**, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitearekin batera, beren eskumenen jardunean ari diren Ikastetxetako gobernu organoen edo irakasleen aurrean, eta baita heziketa elkarteko kideen aurka oso iraingarri edo mingarritzat hartzen diren adierazpideak ere, hitzez, idatziz edo baliabide informatiko edo ikus-entzunezkoen bidez eginak.
- **Zauriak eragiteko** arrisku larria duten liskarrak edo jokabide erasokorrak eragitea, edo beroietan nahastea.

3.5.- IKASTETXEKO EDO IKASKIDEEN MATERIALARI ERRESPETUA.

Denok, irakasle, monitore, entrenatzaile nahiz ikasle, ardurak hartu behar ditugu zentzu honetan, ahal dugun instalakuntza eta espazio ordenatu eta txukunenak izateko geure ekarpena eginez.

- **Jokabide ezegokiak dira:**

- Ikastetxeko hornikuntza elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo beste edozein motatakoa, berariazko baimenik gabe erabiltzea.
- Ikastetxeko lokalak, bertako materialak edo heziketa elkarteko gainerako kideen objektu eta gauzak hondatzea, asmo txarrez izan gabe, zabarkeria hutsez egiten denean.

- **Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat hartzen dira:**

- Jakinaren gainean edo erabilera okerragatik, kalteak eragin direnean, ikastetxeko lokaletan, altzarrietan, materialetan edo dokumentuetan, edo heziketa elkarteko gainerako kideen gauzetan, eta ikastetxeko elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabideak ez direnean.

- **Ikastetxeko elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabidetzat hartzen dira:**

- Gurasoen edo tutoreen sinadurak faltsifikatzea.
- Bandalismo ekintzetan parte hartzea edo instalazioetan, ikastetxeko ondasunetan, bertako langileei, beste ikasleei edo hirugarrengeoi kalteak eragitea.

3.6.- JABETZARI ERRESPECTUA.

- **Jokabide ezegokiak** dira:
 - Ikaskideen gauzak intentzioz erabiltzea haien gogoz kontra.
- Ikastetxeko **elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat** hartzen dira:
 - Objektuen bat lapurtzea.
- Ikastetxeko **elkarbizitza larriki** kaltetzen duten jokabidetzat hartzen dira:
- Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokaera errepikatzea eta altzariak, instalazioak edo pertsonak bortxatuz objektuak lapurtzea.

3.7.- GIROA (Entrenatzaile, monitore, irakasle eta taldekideekin)

Ikastetxeko **elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat** hartzen dira:

- Gurasoentzat, legezko ordezkariarentzat edo irakasleentzat diren entrenatzaile, monitore edo irakasleen oharrak ez eramatea.
- Eskolaz Kanpoko Jardueren garapen normala aldatzen duten justifikazio gabeko ekintza indibidualak edo talde mailakoak, taldekideen ikaste eskubidea benetan oztopatzen dutenean.
- **Ikaslegoak debekatua du sakeleko telefonoa erabiltzea, beraz, ezin izango du sakeleko telefonorik erabili entrenamendu, partidu eta klase orduetan, gelan eta gune hezitzaileetan (aldagelak, klaseak,...).** Ikastetxera ekarriko balu, itzalita, aldagelan edo motxilan gordeta eduki beharko du.
- **Erabat debekatua dago ikasleentzat ikusentzunekeo eta/edo tresna elektronikoak ikastetxean erabiltzea** (argazki makina, bideokamara, argazki tresnak, bideojokoak, ipod, tabletak...) bertako arduradunaren baimenik gabe (irakasleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, entrenatzaileak, monitoreak...) **entrenamendu, klase eta partidu garaian.**
- Era berean, **erabat debekatua dago ikasle, irakasle, hezitzaile edota zerbitzuetako pertsonen irudi eta soinuen grabazioa**, irakasle baten baimenarekin ez bada, ikastetxeko edozein gunetan (aldagela, zerbitzuak, jantoki edo eraikineko beste edozein gunetan, patioak barne)

3.8.- OSASUNAREN ZAINTZA.

Higienearen aurkako ekintza da, gelan, korridoreetan, eskaileretan edo ikastetxeko beste lekuetan erretzea, eta beste ikaskideei kalte egin diezaieke. Horregatik dago Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Hezkuntza sailak debekatua.

- Ikastetxeko **elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat** hartzen dira:
 - Geletan eta aldageletan janariak edo edariak kontsumitzea, edo baita ikastetxeko esparruan erretzea ere.
 - Eskolaz Kanpoko Ekintzetara, berariazko arropa ekarri beharko dute. Dutzatzea gomendatzen da.
- Ikastetxeko **elkarbizitza larriki** kaltetzen duten jokabidetzat hartzen dira:
 - Heziketa elkarteko kideen osasunarentzat eta osotasun pertsonalarentzat oso kaltegarriak izan daitezkeen jokaeretara kitzikatzea, baita eredia eman ez ere, hala nola, tabako, alkohol eta droga kontsumoen bidez. Halaber erabat debekatuta dago osasunarentzat kaltegarriak izan daitezkeen sustantziak eskolako instalakuntzetan gordetzea.
 - Zauriak eragiteko arrisku larria duten liskarrak edo jokabide erasokorrak eragitea, edo beroietan nahastea.

4.- EKINTZETATIK EGOZTEA.

Ahal dela ez da eskolatik (Pintura, ingelesa,...)edo entrenamenduetatik inor egotzi behar, oso muturreko kasuetan izan ezik, gainerakoentzat eragozpenak eragin ditzakeelako eta ikasle berarentzat denbora galtzea delako.

Egoztea ezinbestekoa bada, kontuan izan behar da oso zigor larria eta ezohikoa dela gelatik edo entrenamendutik egoztea, azkeneko irtenbidea dela, ez lehenbizikoa. 5 minuturako egotziz ahaleginduko da burututako jokabide ezegoki horiek zuzentzen.

Gelatik edo entrenamendutik egoztea gertatzen bada, jarduera positiboren bat edo galdutako denboraren errekupeazioa egitea proposatuko du irakasleak, entrenatzaile edo begiraleak.

Irakasleak, entrenatzaileak edo begiraleak, era berean, egoztearen arrazoiak batuko ditu. Ikasle bera hiruhilabete batean bi aldiz egotzia izango balitz Eskolaz Kanpoko Arduradunei jakinarazi behar zaie. Honek era berean familia edo hezitzaile arduradunei jakinaraziko zaie.

Hiruhilabete berean ikasle bat **hiru aldiz izan bada egotzia** praktikatzen duen jardunetik egotzia izango da egun batez. (Kirolaren kasuan partiduak jokatu gabe geratuko da ikaslea).

Egozteak behin eta berriro gertatuko balira, elkarbizitzaren aurkakotzat edo ikastetxeko elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabidetzat hartuko dira.

5.- HEZIKETA-NEURRI ZUZENTZAILEAK

Ikastetxeko Heziketa Elkartearen bizitza ez dago irizpide arauzale baten bidez markatua, baizik elkarbizitzak, elkarrekiko konfiantzak eta laguntasun giroak izan behar dute nagusi. Nola nahi ere, ikastetxea, indarrean dagoen legeriaren menpe dago eta, beraz, ekintza zuzentzaileak aipatutako dekretuan adierazitakoaren arabera aplikatuko dira.

Jokabide ezegokiak irakasleek, entrenatzaileek eta tutoreek zuzenduko dituzte, ikaslearen pertsonarekiko errespetuzko eta laguntzeko harreman positiboa mantenduz beti ere, ondorengo neurri hauetakoren bat edo gehiagoren bidez:

- **Jokabide ezegoki zehatzaren** eta bere ondorioen inguruko **gogoeta**.
- **Jokabide ezegokiaren aitortza**, horren ondorioz kaltetuak izan daitezkeen pertsonen aurrean.
- **Ikasketa jarduerak egitea eta jokabide zuzenaren bideak barneratzea**.
- **Hondatutako materiala ordezkatzeta** edo konpontzea.
- **Jokabide ezegokiarekin lotura duen eskolako lanen bat egitea**

Elkarbizitzaren aurkako jokabideak zuzentzeko, zuzendariak, ondorengo jokabide hauetakoren bat edo batzuk erabil ditzake:

- Elkarbizitzaren aurkako jokabide zehatzaren eta bere ondorioei buruzko gogoeta, eta zuzentzeko orientabideak.
- Idatzizko ohartarazpena, bertan, entrenatzaileen, begiraleen edo, bere kasuan, irakaslearen txosten zehatza sartuko delarik.
- Ohartarazpena gurasoen edo legezko ordezkarien aurrean.
- **Ikaslea taldez** (Eskola Kirolean posible bada, aztertzeko gaia) edo gelaz **aldatzea**, aldi baterako edo behin betirako.

- **Heziketa lanak, edo eragindako kalte materialen konponketako lanak egitea**, edo, behar balitz, ikastetxeko jardueren hobekuntza eta garapen lanak, lan hauek elkarbizitzaren aurkako jokaerarekin zerikusia duten neurrian.
- **Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubiderik gabe uztea**, ez hiruhilabetekoaren amaierara arte baino gehiago. (Entrenamendu edo partiduetan parte hartzeko aukerarik ez izatea)
- Eskolaz kanpo izango diren **jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubiderik gabe uztea**, ez hiruhilabetekoa baino gehiago.
- Eskola jardueran eta Eskolaz kanpoko ekintzetan, **mugikorren erabilpen desegokiagatik proposatzen diren neurri zuzentzaileak eta prebentiboak**:
 - a. Kursoaren hasieran, teknologia berrien erabilera egokiaren inguruko hausnarketa burutu eta IKT-en erabilera arduratsuko jarrerak sustatzeko, erabiliko da. (sakelekoen inguruko araudi bertan azaldu)
 - b. Hezitzaile (Entrenatzaile, irakasle, begirale) batek ikaslea **baimenik gabe sakeleko telefonoa zein beste tresna elektronikoa bat erabiltzen ari dela erreparatuko balu**:
 - **Lehen aldiz bada**, hezitzaileak telefonoa kendu egingo dio eta ekintza amaitzean bueltatuko zaio, berriz ere araudia azaldu ondoren.
 - **Bigarren aldiz bada**, hezitzaileak telefonoa kenduko dio (Itzali egingo da) eta eskolaz kanpoko arduradunen esku utziko du. Kasu honetan Eskolaz Kanpoko Arduradunak gordeko du tresna. Halaber, gertatutakoa gurasoei jakinaraziko zaie, eta hauek mugikorra batzera hurbilduko dira ikastetxera. Gurasoei ere araudiaren berri eman.
 - **Hirugarrenez bada**, hezitzaileak telefonoa kenduko dio eta Eskolaz Kanpoko Arduradunaren esku utziko du. Azken honek koordinatzaileari utziko dio gailua. Koordinatzaileak familiari deitu eta indarrean dagoen araudia aplikatuko litzateke ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabidetzat hartuz.

Kasu guztietan ere beharrezkoa izango da ikaslearen alde aurreko entzunaldia. Ikastetxeko jardueretan parte hartzeko eskubiderik gabe uzten denean, beharrezkoa izango da gurasoen edo legezko ordezkarien entzunaldia ere.

Ikastetxean elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabideak.

Zuzendariak zuzen ditzake aurreko puntuan jasotzen diren puntuetako bat edo gehiagoren bidez, eta baita ondorengo beste hauetako edozein erabiliz ere:

- a) Heziketa lanak, edo eskolako jarduerak hobetzeko edo garatzeko izan daitezkeenak, edo eragindako kalte materialak konpontzeko lanak eskola-orduz kanpo egitea.
- b) Ikastetxez kanpoko eskolaz kanpoko jarduera osagarrietan parte hartzeko, edo zerbitzu jakin batzuk erabiltzeko eskubiderik gabe uztea, ikasturtea amaitu bitartean ere iraun dezakeelarik.

Ikastetxeko elkarbizitza larriki kaltetzen duen jokabidea, ikastetxeko irakasle, begirale edo entrenatzaile baten aurkako bortxa edo erasoa denean, zuzenean proposa daiteke aipatutako aldaketa, ikaslea aurrez zuzendu behar izan ez bada ere. **Heziketa administrazioak erabakiko du gertakarien aurrean zer egin behar den.**

Neurri hauek hartzeko orduan, ikaslearen jokabidean eragina izan dezaketen zirkunstantzia pertsonal eta sozial guztiak hartu behar dira aintzat irakasleei edo zuzendariari, bere eginbeharrak betetzearen garrantzia behar bezala ulertu eta baloratzeko balio diezaieten.

Hartu beharko diren gainerako izapide eta neurrietan, eta arautegi honetan jaso ez direnetan, Eusko Jaurlaritzak momentuan indarrean duen , ikasleen eskubide eta betebeharren dekretura joko dugu.

Jokabidearen neurri zuzentzaileak ezarri behar direnean, aintzat hartu beharko dira, bai heziketa elkarteko gainerako kideen eskubideen jardunean eta betebeharrak betetzerakoan duen eragin maila, bai ikaslearen jokaeran eragina izan dezaketen zirkunstantzia pertsonalak eta sozialak, ikastetxeko irakasleei eta zuzendariari, 3. artikuluan adierazitako oinarrizko ahalmenetan, bere eginbeharren ez-betetzea eta hutsegiteak behar bezala baloratu ahal izateko balio diezaieten. Aintzat hartu beharko dira, halaber, jokaera gertatu deneko zirkunstantziak zein neurritan aldarazi izan dezaketen ikaslearen erantzukizuna.

Ikasturte hasieran, Ikastetxeek erabakitzen duten modurik egokienean, Dekretu honetako edukia, eta baita Antolaketa eta Funtzionamendu Arautegian edo Ikastetxeko Barne Arautegian datozen elkarbizitza arauak ere, ezagutzera eman edo gogorarazi egingo dizkiete ikasleei (Tuoreen eskutik eta Eskolaz Kanpoko Arduradunen eskutik), gurasoei edo legezko ordezkariari, zuzenduak izan behar duten jokaerak, heziketa elkarte osoak ezagutu ditzan (Ikastetxeko WEB orrian jarriko dira).

6.- ESKOLAZ KANPOKO EKINTZETAN ALDAGELEN ERABILERA

Ohiturak eskuratzeko orduan familia dela arduradun nagusia ahaztu gabe, ikasleek, zuzentasuna mantenduko dute, beren portaeran eta aldagelen erabileran.

Aldagelen erabileraren oinarrizko arauak betetzen ez direnean, araudi honetan batzen diren heziketa neurri zuzentzaileak ezarriko dira.

Ikastetxeko hezitzaile guztiek, beren zeregina beteaz, ikasgelan edo Ikastetxeko instalakuntzetan beren zuzeneko zaintzapean daudenean egindako jokabide ezegokian neurriak hartuko dituzte, baina euren zaintzapean ez daudenean ere, hitzez errieta egiteko eskumena eta beharra daukate, unean bertan, elkarbizitzaren aurkako edo elkarbizitza larriki kaltetzen duen jokabideren aurrean.

Aldagelak ikastetxeko beste guneak bezala gune hezitzailea dira eta ondorioz errespetuz jokatu behar da espazio honetan. Horretarako, erabilera egokia emateko asmoz eta elkarbitza arauak bete daitezcan erabilpen arautegi hau jasotzen da:

1. Aldagelen erabilpenerako denbora:

- Aldagelen erabilpenerako denborak honako hauek izango dira:
 - Entrenamendua hasi baino 15 minutu lehenago bajatuko dira ikasleak aldageletara.
 - Entrenamendua amaitu ondoren 15 minutuko denbora izango dute ikasleek aldageletatik ateratzeko.
 - Taldeko entrenatzaileak edo delegatuak izango dira arau hau betetzea bermatuko dutenak.
 - Denbora hauek ez betetzeak jokabide desegoki lez batuko dira.

2. Erabiltzaileek aldagelen erabilera egokia egin behar dute eta bertatik ateratzean baldintza egokietan utzi behar dituzte:

- Aldagela, jantziak aldatzeko eta norberaren garbitasunerako soilik erabiliko da.
- Erabiltzaileak aldagelak batuta eta txukun utziko ditu.
- Aldagelak garbi mantendu behar dira (Zakarrontziak erabiliz)
- Dutzak eta komunak dituzten erabilpenetarako erabiliko dira.
- Aldageletako takilak erabiliz gero, hutsik utzi behar dira.

3. Erabilera egokia izan daiten ez dira honako ondorengo jarrera edo ekintza hauek onartzen:

- Aldageletan mugikorrek erabiltzea, ondorioz, argazki eta grabazioak egitea.

- Aldageletan beirazko ontziak sartzera, apurto ezker arriskutsua gerta daitekeelako.
- Aldageletan jolastea, arineketan aritzea,... Aldagelak dutxa eta jantzi aldaketarako erabiliko dira.
- Aldagela barruan jatea edo erretzea.
- Aldageletako takilak egun batetik bestera gordetzea. (Egunero hutsik utzi behar dira)
- Beste sexuko pertsonen aldagelak erabiltzea eta bertara sartzera.

4. Funtzionamendu egokirako beste argibide batzuk:

- Mutilentzako lau aldagela daude eta kopuru bera neskentzat. Eskolaz kanpoko arduradunen aldetik beste komunikaziorik ez badago sexu banaketa horrekin erabiliko dira. (Momentu berezietan sexu erabilpen aldaketak egin daitezke)
- Aldagelak elkarbanatu egin daitezke talde desberdinen artean. (Adibidez: 15 pertsonako kirol talde batek beste talde batentzat espazioa eskura utzi behar du).
- Eskolaz Kanpoko ekintzetan galdutako gauzak 30 egunez gordeko dira ikastetxeko objektu galduen gelan. (Gela honen gestioa mantentzen taldeko pertsona da)
- Takilen erabilpena egokia izan behar da erabiltzaileen aldetik. Ikastetxea ez da arduratzen takiletan utzitako objektuez.
- Instalazioetako langileek, irakasleek, entrenatzaileek, delegatuek,... portaera txarra duten ikasle edo pertsonak ohartarazteko edo instalazioetatik kanporatzeko ahalmena dute. Hau gertatzean, instalazioetan dagoen arduradunari jakinarazi behar zaio. (Eskolaz Kanpoko Arduraduna edo mantentzen arduradun)
- Arauak ez betetzeak edo jarrera desagokiak izateak Eskolaz Kanpoko Arautegia aplikatzea ekarriko du ondorio bezala.
- Arautegi hau ikastetxeko WEB orrian jarriko da ikasle, ikasleen familia eta aldagelen erabiltzaile guztien esku. Arautegia ez ezagutzeak ez du esan nahi, erabiltzaileak bete behar ez duenik.

Aldagelen arautegi hau, Eskolaz Kanpoko Ekintzetan, Kirol arloan, parte hartzen duten ikasleei jakinaraziko zaie.

***Eskolaz Kanpoko Arautegi hau Ikastetxeko arautegiaren adaptazioa izanik berekin lotura zuzena du aplikatzerako garaian.** Hartu beharreko neurri zuzentzaileak Eskolaz Kanpoko Ekintzen koordinaziotik, Koordinazio Pedagogikotik, tutoreen eskutik edota zuzendariaren eskutik etorri daitezke.

*Ziberjazarpen eta jazarpen kasuak gertatuko balira, eskolako arautegira joko genuke. Bertan adierazten den moduan, kasu bi hauek eman ezker, Jaurkitzearen protokoloa martxan jarriko litzateke.